

Extraits de Theatre Basque.

"AMAL"

MADHAV- (Sartuaz) - Edera egin dezue bion artean!

AGUREA - Zer dezu bada ? Zer gertatu da ?

MADHAV.- Mundu guzia marmarean ari dala ; Eregeak aureko bere idazketxe ori zuie biei idazkiak egin eta bidaltzen aritzeko dala esanaz.

AGUREA- Bai, ta zer ?

MADHAV- Pantxana nagusiak Eregeari azpitik esanerazi diola...

AGUREA- Ez al zekikagu bada guziok Eregeak gertatzen dan guzia jakiten duana ?

MADHAV- Eta zergatik ez dezue bada begirakun geixeago ? Ez zenukete Eregearen izena aotan alperik erabili bear! Ondatu bear nazue zuen goraberaekin !

AMAL- Pakira, Pakira, asaretu egingo al da Eregea ?

AGUREA- Zer asaretu bear dik ! Ez mutilko, i bezelako mutilko batekin eta ni bezelako Pakir batekin...! Ea beregana joan eta ederak esaten dizkiotan...!

AMAL- Adizu, Pakira, gaur goizetik asita, lañea edo dadukat begien aurean... Gauza guziak osoro oiezak iruditzen zazkit... Ez dadukat itzegiteko gogorik... Geldi egon baninteke... Noiz etoriko ote da Eregearen idazkia ? Gela au bat-batetan erori ta parukatzea ta... naiko nuke.

AGUREA- (Aize-ostoz Amali aize emanaz) - Gaur etoriko dek noski idazkia...

SENDALARIA- (sartuaz)- Nola ago bada gaur?

AMAL- Oso ederki, Sendalari jauna, ez dadukat batere oñazerik.

SENDALARIA- (Madhavi berezi)- Iri ori ez det batere atsegin. Ezaupide txara da oren ondo egotea. Txakaradane dio...

MADHAV- Ondo da, bañan utzi zazu Txakarakan ori alde batera, nik ~~aura~~ nola dagon jakin nai det !

SENDALARIA- Luzaroan ez duala iraungo uste det... Esan nizun lenago ere... Beriz ere oztu egin da...

MADHAV- Ez, aura ez da bada atera batere... Eta leioak ere itxita egon dira.

SENDALARIA- Nik ez dakit bada gaur aizeak zer duan ! Ni sartu naizenean, aize-laister aundia zan ate nagusian. Eta ori ez da ona... Atea giltzaz ixtea izango da onena. Bi edo iru egunez etxean inor ez artzea ez zaitzula axola izango uste det ; eta norbaitek aura ikusi nai badu, sartu dedila ezkutuko atetik... Eta leio ori ere itxi egin bear litzake... Ilunabareko eguzkiaren leinuruak, erriari loa galerazteko, bestetarako ez dira.

MADHAV- Begiak itxi ditu. Loak artu ku noski. Zer arpegia dadukan ! Ai, Sendalari jauna, nerea balitz bezelaxe ekari nuan, eta, aia maite izanik, galdu egin bear betiko...!

SENDALARIA- Nor, nor da ori?... Toki guzietan sartu bear duala Nagusi orek ! Ori gizona!... Ea, nik joan egin bear det. (Madhavi) Obelitzake guzia ondo itxita dagon ala ez, biok ikustea... Etxera eldu orduko bidaliko det dendagari ortatik ugari; ea, orela zerbait egiten ote degun... Alarik ere, nik uste...

(Madhav eta Sendalaria ateratzen dira).

NAGUSIA- (Santuaz)- Kaixo, mutiko !

AGUREA- (Bat-batetan jeikitzen dalarik)- Ago ixilik !

AMAL- Ez da axola, Pakira : ez negon lotan ! Guzia entzun det... Baita urutiko ots batzuek ere... Begira nere aita eta nere ama... Nere ondoan jarita gaude eta izketan ari zazkit...

ANTON KALKU

Lenguak eta Anton ta Eskribaua

- ESKRIBAU - (Antoni azaltzeakuan) - Badakizu zer esan e ?
- ANTON - Ba jauna.
- NAGUSIYA - Eskribauarekin datorrena da pillua ori.
- AGUAZILLA - Egun da ogei arkume janda ezta asko gizendu.
- ESKRIBAU - Alkate jauna : ni nator au eskudatzea.
- ALKATIA - Asi gaitian. (idi zintzarri aundi bat jotzen du) Nagusiyak salatu bezala.
- NAGUSIYA - Aukumiaren lapurreta progatuko det. Neroni naiz testigu.
- ESKRIBAU - Inor ezin liteke izan testigu bere gauzan.
- NAGUSIYA - Bai besterik ez danian.
- ESKRIBAU - Ez.
- NAGUSIYA - Bai.
- ESKRIBAU - Ez.
- NAGUSIYA - Bai.
- ESKRIBAU - Ez.
- NAGUSIYA - Bai.
- ALKATIA - Ixoooo (zintzarriya indarrarekin dabilleta). Kulpagarri deritzaegyonak zerbait argi emango ditu.
- NAGUSIYA - Ori da. Begiratu besterik ez du : orren arpegiyak berak esaten du lapurra ta gaixtua dala.
- ESKRIBAU - Poliki gero emen itza oyekin !
- NAGUSIYA - Biyok ere alkarren antza badezute.
- ESKRIBAU - Zu izango zera lapurra.
- NAGUSIYA - Zu aundigua.
- ESKRIBAU - Zu.
- NAGUSIYA - Zu.

ESKRIBAUUA- Zu.

NAGUSIYA- Zu.

ALKATIA- Eee !!! Ixooooo!! (berriz ere zintzarriyarekin) Aguazilla ; lenbizi albbrotatzen aste'ana, itzalera eraman. Tira, atoz onara (Antoni, bañon Anton ez da mogitzen). Arrima ; ez al dezu aitzen ? Aixkiria, nola dezu izena ?

ANTON - Bee. (Baadia egin biar du).

NAGUSIYA- Gezurra. Anton du izena.

ALKATIA- Anton ala De ez du importik. Konta nazu. Egiya al da jauna onen arkumiak gordetzen dituzula ?

ANTON - Beeee (geruago ta beadi gogorrago ta luziago).

ALKATIA- Zer ?

ANTON - Beeeee.

NAGUSIYA- Orain lelo ta gor papela egin nai al dek ?

ALKATIA - Jauna oni falta al zaizka eun da ogei arkume ?

ANTON - Beeeeeeeee.

ALKATIA- Nundik ekarri dezu izkera berriya ori ? Egiya al da nagusiyak zu ikusi zaitubela arkumiak iltzen ?

ANTON - Beeeee.

ALKATIA- Zer esan nai du onek ? Bai al dakizu zeñen aurrian zauden orrela agertzeko ?

ANTON - Beeeeeeeeeee.

ESKRIBAUUA- Onek esan nai dubena da, justiziya eskatzera datorrela eta nik progatuko det nagusiyak buruban eman dizkan kolpiak zentzua itzuli azi diyojela, eta legez dago illa, zergatik animako izate moduak faltatu zaizkan, eta ori da okerrago gorputz bat iltzia baño. Biziya kendu diyo, zergatik kendu dizkan irabazteko moduak, eta il biar baldin bada gizon bat arkume batzubengatik, nik eskatzen det gizona orrela iltzen dubenarentzat lepoko pena.

ALKATIA - Nagusi jauna, txit gaizki ikusten det zure auzia.

NAGUSIYA- Gaizki ?

ALKATIA - Ez al da ezer alkatia ? Justiziya zure eskutik egin, eta jotzia basta etzala buruban jo ?

NAGUSIA- Batek arrabiyarekin ez da konturatzen nun jotzen duben !

ALKATIA- Kondenatuba ateratzen zera. Gizona estañuba ortan utzi illa bañon okerrago !

ESKRIBAUUA- Ederki alkate jauna ! Badegu rerum confitentem.

NAGUSIYA- Zer konfite ta konfietro ! O etsayak eraman biar dute o pagatu biar dizkit ardiyak.

ALKATIA- Ez emen itzikan atera. Zuk pagatuko dituzu gastubak eta gañera sendatzeko biar dituben erre-medio guztiak, eta/ezkerrak arakiñaren agintari zu zerala eta zuregatik ematen nautela aragi ezurrik gabia, bestela onezkero agñdu nabun txitua bezela itatzeko. Eta Anton gizarájua lenbailen sendatzeko bidian jarri.

NAGUSIYA- Apelatu egingo det.

ALKATIA- Pelatuko zaitu eskribauak eta orrekin segitu nai badezu.

NAGUSIYA- Arrapatuko zaitut, tunantia !  
(Anton meatzatzen eta ateratzen da).

AU OSTATUBA !!

LENGUAK ETA TXOMIN

- BIZENTE - Sartzen dala kantari
- TXOMIN - Jauna.
- OSTALARIYA- Mutill, eztarikoz zintzarriya moztuko diat.  
Ona ~~nun~~ dituzten kuartuak.
- INAZIO - Emen beti jendia izango da ?
- OSTALARIYA- Bai, jauna. Nola Donostiko bidian dagon ez da beñere falta.
- KAXILDA- Ai noiz arkituko naiz ni andre Joxepanian txokolatetxua artzen ! Zergatik jakin biar du ni ez banaiz ezkondu ez da faltatu zaizkitalako..
- OSTALARIYA- Goguak ?
- KAXILDA - Ez, gizon gayak, bañan...
- INAZIO - Zaude ixillik, Kaxillda...
- OSTALARIYA- Barkatu bezate, bañan beok noski urrutitik datoz?
- BIZENTE - Bai, sobra. Zenbat bide dago emendikan Donostira?
- OSTALARIYA- Emendik Donostira... emendik Donostira... dozena bat... amalau legua inguru.
- KAXILDA - Ai amalau legua ! Zuk dituzu kulpak. Ez gera beñere alleatuko, burnizko bidian ez jartzeko seta orrekin.
- INAZIO - Bai, lepo ezurra austeko eta berandubago alleatzeko. Utzi, utzi berriketa oyeri eta ia zer degun jateko.
- OSTALARIYA- Eska bezate. Ez dakigu been gustoa, bañan ez da faltako.
- KAXILDA - Guk nai degu ondo tratatzia, zergatik ez gaude nolanai oitubak eta ni ez banaiz ezkondu ez da..
- INAZIO - Ixooo, Kaxillda. Jarri aguro eta kosta ala kosta. Artako gera indianoak ; bañan al dan merkiena aitzen ?
- OSTALARIYA- Bai, bai. Jango al luteke... indiyano bat... edo indi-ollo bat ?

KAXILDA - Zergatik ez ?

OSTALARIYA- Gaur goizian... Ez da egiya, Txomin ? il degu bat arrua t'erdikua.

BIZENTE- Bai, bai, jarri.

INAZIO - Kaxuelan al dago ?

BIZENTE - Erria edo gisatuba ?

OSTALARIYA- Onezkero baitare urtuba, zergatik, gaur eguar-diyen etorri diran jaun batzubenek jan dute.

GUZTIAK - Ba, ba, ba, ba!

TXOMIN - Ta zer ederra zeguan ! Zer gizena !

OSTALARIYA- Bañan beste zerbait izango da.

INAXIO - Zer bada ! Esan eta ez izan orren pixuba.

OSTALARIYA- Jaten al dituzte ollagorrak ?

BIZENTE- Neretzat platerik onena orixen da.

KAXILDA- Saltsa goxuekin. Bai, ni ondo oituba nago, eta ez banaiz ezkondu ez da...

BIZENTE- Kaxillda !...

OSTALARIYA- Emen agertzen dira bada noizik bein...

INAZIO- A zer poztasuna !

OSTALARIYA- (deika)- Txomin.

TXOMIN - Jauna. orlakerik ikusi.

OSTALARIYA- Emendik pasa dan extari batek etzeamazkiyen iru edo lau ?

KAXILDA- Deitu bada, edo dijuala mutilla zaldiz ekartzera.

INAZIO - Zer ! Ori gerta zala bada onezkero urte bete.

OSTALARIYA- Ezta lau illabete're astua !

INAZIO - Ederki gaude gosiak iltzen !

KAXILDA- Ai, flakiyak iya bota nau !

BIZENTE- Bañan zer jan biar degu ?

BIZENTE- Ori bañan goyago ikusi izandu dek nik. Zaluz bat erantzuten zubena galdex gastiari.



OSTALARIYA- Eskatu bezate : ez dakigu beoen gustua, bañan ez da faltako.

BIZENTE- (bezagitzen)- Ez da faltako, ez da faltako ! Deabruak ditu gizon onek gorputzian.

INAZIO- Tira aguro beste zerbait.

KAXILDA - Jan al litezke ollasko pare bat gisatuta illarrarekin ?

OSTALARIYA- Bai, bai, eta orixen da errexena.

BIZENTE- Beriala lumatzea.

INAZIO- Piztu suba.

OSTALARIYA- (burua arraskata)- Bañan...

GUZTIAK- Zer, zer ?

OSTALARIYA- Kasua da...

BIZENTE - Kazua anbat da lurrezkua noia burnizkoa.

OSTALARIYA- Kasua da...

INAZIO - Erozein.

OSTALARIYA- ... gure ollaskuak ez dirala oraindik arrautzetik atera.

KAXILDA- Ez dirare txituak ?

BIZENTE- Arrania !

INAZIO - Auxen dek komediya ! Ez det nik oraindik tratuan ere beste orlakorik ikusi.

BIZENTE- Ezta bestelakorik ere.

KAXILDA- Sekulan ez da izan ta.

INAZIO - Ezta nai're. Txorakeri oyek ikustiatik diruba eman.

KAXILDA- Tripako miñ batek eramango zinduke.

INAZIO - Alare, Habanako kalietan ikusi izandu det gauza arrigarri bat. Beltz bat, amukua abuan sartu, su eman eta jaten gutxinaz lau arrua.

TXOMIN - Ez dira emen orla mantentzen.

BIZENTE- Ori bañon geyago ikusi izandu det nik. Zaldi bat erantzuten zubena galdea guztiari.

OSTALARIYA- Euskaraz ala erderaz ?  
BIZENTE- Ankarekin.  
TXOMIN - YA (ostalariyari)- Beorrek neri bezela.  
OSTALARIYA- Txomin, artuko dek... (meatxatzen)  
TXOMIN - YA Ez, ez.  
INAZIO - Mutill biziya diruri onek.  
OSTALARIYA- Bai, ostiko bat artu orduko konturatzen da.  
KAXILDA- YA Bañan zer egin biar degu ?  
BIZENTE- Deriala emendik jutia da onena.  
KAXILDA - Jarri ezatela kotxia.  
OSTALARIYA- Bai al dijuaz orrenbestekin ?  
INAZIO- Zer jan biar degu bada ?  
BIZENTE- Ez al da bakallabikan ?  
OSTALARIYA- Bakallaba ? Ez da beñere falta etxi ontan.  
BIZENTE - Konpondu bada aguro tomate pixka batekin.  
OSTALARIYA- Bañan kasua da...  
INAZIO - Ez dubela ezer esan nai kazua edo kazuelak.  
OSTALARIYA- ... nere semiak eskolara eraman dubela atzetik zintzilik.  
BIZENTE- Ez gaituzula zoratu zure astakeriyekin.  
KAXILDA- Ez dakagu farra egiteko gogorikan.  
INAZIO - Guazen, guazen emendik.  
KAXILDA- Guazen lenbailen. Ai ! ez nago ni orrela oituba, eta ez banaiz ezkondu...  
BIZENTE - Ezin zendubelako. Ixooo.  
OSTALARIYA- Ez bitezela aserretu orrengatikan. (morroya kantari)- Ago ixillik, ez dek baliyo sereno-tzako're. Zer nai duten eska bezate eta ez da faltako.  
INAZIO - Ez da faltako, ta ezer ez dago.

OSTALARIYA- Beok jango luteke gustora arrayen bat edo beste.

BIZENTE\* Bai, bai ; naiz korkoi pare bana.

OSTALARIYA- Bañan...

GUZTIAK- Zer ?

OSTALARIYA- Itxasua aifñ urruti dago emendik...

BIZENTE- Eta zure juiziyua ere bai.

INAZIO- Naiz sardin zarrak...

OSTALARIYA- Emen zartu bañan len akabatzen dira sardifiak.  
Nola jende asko ibiltzen dan...

BIZENTE - Besterik ez bada, ez da izango arrautz pare  
bat ?

OSTALARIYA- Eta beorri bezelako gizon batek egitia galdea  
ori !

BIZENTE - Zer txar du bada ?

OSTALARIYA- Ez balin bada ollorik ta ollarrrik etxian nola  
nai du izatia arrautzak ? Ez det ikusi beñere  
pronostikuban orlako galderik.

KAXILDA- Nik usten det zuk ez dezula urikan ere.

OSTALARIYA- Ortan gaizki pensatzzen dute. Badakagu putzutxo  
ur batekin ! pixka bat loitsuba da, ta zikiña  
ta gaziya... bañan gure manduak eraten dute  
eta guk ere bai.

BIZENTE- Manduak bañan manduago zeratelako. Guk bada ez.

OSTALARIYA- Zer nai dute bada azkenian ?

INAZIO - Azkenian ? Aurrenian ere artuko genduke zerbait.

OSTALARIYA- Eska bezate bada. Ez da faltako.

INAXIO - Guztiya ezer ez dan lekuban.

OSTALARIYA- Nai al lituzteke baratxuri sopa batzubek ?

BIZENTE- Zer esaten dezu ?

KAXILDA - Nik barrengo moteltasuna kentziagatik baita  
porrubenak ere. Zeñek esan biar zian neri  
ontan arkitu bear nintzala ! Ez nago orrela  
oituba, ez ! eta ez banaiz ezkondu...

BIZENTE - Ezta ezkonduko're.

KAXILDA- Zer dakizu zuk ?

INAZIO - Nik gosia iltzeko eronein gauza.

BIZENTE- Jarri bada aguro.

OSTALARIYA- Meriala egingo diyotet plater eder bat. Txomin,  
ua errotara eta ekar zak ogiya.

TXOMIN - Ba, jauna. -kantari-

INAZIO - Ez degula musikikan bear emen, jakiya biegu.

BIZENTE- Ta ez al da ogirik etxean ?

OSTALARIYA- Ekarriko du errotatik instantian.

KAXILDA - Zenbat bide dago emendik errotara ?

OSTALARIYA- Gutxi. Iru legua eskas.

KAXILDA - Etorri bañan len gogortuko da bidian.

INAZIO - Esayozu ez nekatzeko.

BIZENTE - Au gizon animaliya ! Kotxia jarri ta guazen.

OSTALARIYA- Pazientzirik nai ez badute artu eta juteko  
burutaratubak badaude, Txomin, atera zak  
tintontziya, papela ta plûma, eta jarri akikyok  
jauna aberi kontuba.

GUZTIAK - Zer kontu ?

BIZENTE - Erotu al zea, gizona ? Zer eskatzen dezu ?

OSTALARIYA- Ezta luzia. Lau errial bi oi, eta sei errial  
kuartuak, amar.

KAXILDA - Zer kuarto pagatu biar degu ez bagera sartu ere.?

OSTALARIYA- Ta nik zer kulpa det ? Beok eskatu dituzte,nik  
eman diyotet eta or daude beoen zai ondo  
garbiyak eta txukunak...

BIZENTE- Ori pagatu bañan len...

OSTALARIYA- Ikatza ta egurra...

BIZENTE - Aski da, ijitua !

INAZIO - Lapurra !

KAXILDA - Kontzientzi bide bagekua !

OSTALARIYA- Ikatza ta egurra sei... amasei...

BIZENTE - Makillazo artu biar zendituke...

OSTALARIYA- Atariko arriya gastatzen dana kurpillekin kotxia pasatzian...

GUZTIYAK- Ixoo, Ixooo!!

OSTALARIYA- Bost... orra ogei ta bat.

INAZIO - Guazen emendikan.

BESTEAK - Guazen, guazen.

OSTALARIYA- Sartzen duten bulla ta ojubengatik... amabi... ogei ta amairu.

BIZENTE- Itzalpera eramango zaitut.

OSTALARIYA- Oyez gañera eman bezate zerbait neskatxentzat orratzetako eta mutillari nai dutena trago batentzat.

KAXILDA - Tragatuko zinduket nik.

OSTALARIYA- Traga beza nai badu senarra ezkontzen danian.

KAXILDA - Lotsa gabia !

TXOMIN - (leyotik begira)- Extari bat dator erbi batekin.

OSTALARIYA- Erbi batekin ? Banua.

ATERAKO GERA !

Bigarren Irudia

- ATRAKA- (Atzeko atetik sartuaz)- Eup !
- ANTON- (Eman da bera)- Kaxo, Atraka. Zer degu ?
- ATRAKA- Bageala.
- ANTON- Itxasora gabe ?
- ATRAKA- Bo ! Galerna madarikatu bat atera dik, eta legorian gelditu gaituk.
- ANTON- Bejoindaizutela, urtara ezin danian, sagardotara,
- ATRAKA- Askoz ere segurogo dek.
- ANTON- Ez zekiat bada, urtan ez aiz beñere ito, baña...
- ATRAKA- Ik zer dakik?
- ANTON- Mutil, ala uste nikan beñepin.
- ATRAKA - Norbaitek esango zikan da.
- ANTON- Bai, nik buruan ala zeukat ; ez aizela beñere urtan ito, baña, alakoren batian, sagardotan itoko aiz.
- ATRAKA- Ederki eman ere ! Ez bazekiat bada nik yayo igari !
- ANTON- Legorian bai, legorian.
- ATRAKA- Tira, tira, beriketa gutxi ta bete baso bat.
- ANTON- (Basua garbituaz)- Zenbatgarena ?
- ATRAKA- Orain sartu nak, eta zenbatgarena?
- ANTON- (betiaz)- Ez al dek lenokoik?
- ATRAKA- Ez gizona ; lenokuak... danak edan nizkidan.
- ANTON- Ez diat ori esaten. Galdetzen nikan lenokoik ez dekan zor.
- ATRAKA- Bai zera ; arantzaliak oso ondrarubak gaituk. Ez degunian -garbi esatia obe deak ez diagu pagatzen, bana, degunian...
- (askotan ere ez).
- Aurtengo neguan ere, nik arapatzen detan bixigurik aundiyena iretzat izango dek.
- ANTON- Juan dan urtian bezela, neretzako ekari, zuek jan eta atekin edan zekuten sagardua pagatu gabe iges egin...  
To... to...

ANTON- (Basua emanaz, Atraka-k edaten du hondua lurera botiaz)  
Ez nak ni legoteko arantzaliakin fiyatzen.

ATRAKA- Ez dek legoreko arantzalerik izaten.

ANTON- Ez zeldat bada, Joxe Pipax'ek legotian, itxasuan  
baño lupi geyago arapatzen dizkik.

ATRAKA- Pipax'ek... nai duelako. Gizarajuak amaika mixeri  
pasatzen dizkik , lenguan ere geyegi ja-n eta....  
gosiak gelditu.

ANTON- Bai, ta pagatzerakuan gogoratzia aztu.

ATRAKA- Gizon ori baño drolegorik ez diat ikusi. Beti  
beriketan ariko uke, belariyetatik itza dariyola,  
ta batea edo bestea, pagatu gabe iges egiteko moduba  
egiten dik.

ANTON- Oyek beliarena egin, eta, gero sagarduen kontuak  
exkax. Nagusiyari pagatzeko beñere dirurik osatzen  
ez. Batetik neurtzeko usariyo betiyakin ogei ta  
bost kargako upelari ogei ta amar eman...

ATRAKA- Ez dik karga txara euki biar.

ANTON- Eta gero, jariyuak eta mermak, eta sagardua sartzia  
gure kontu, ta upela garbitzia ta sebatzia, ta...

ATRAKA- Ortara ezkerro, ustü ere obe zenuteke zeoke egin.

ANTON- Anbat ori ere.

ATRAKA- Baña, azkenian, zuek negar asko egin aren, erostunak  
berdindu biar izaten dizkik zuen exkasiyak.

ANTON- Baita zera ere.

ATRAKA- Baña, azkenian, zuek negar asko egin aren, erostunak  
berdindu biar izaten dizkik zuen exkasiyak.

ANTON- Baita zera ere.

ATRAKA- Bai, bada ; baxo txikiya jari, ta ura ondo betere ez,  
botiletan gutxi gora berako neuriyak, eta... beste  
txiriyo asko.

ANTON- Gaurko egunian pasako dituk neuri kontuetan ; emen  
dituk beti poto lege beriko oyek ikusten, eta edozein  
gauzen gatik, zapla, multa ! Lenguan ere, patiña  
zikiña zegolako bi pesetatzar multa !

ATRAKA- Otelakuan zelaoriari baxo pare bat eman ezkerro  
ixilik pasako dik.

ANTON- batzuek, bai, baña, badek galego buru aundi bat...  
gaxtuo dek zezen napara baño. Bere parajetik onera  
erdi gosiak etori ukan, eta orain paru aundiya ezpa-  
ñetan duela, markesa diruiyela or zebilek pasiñzen  
kalietan.

ATRAKA- Eta orenbeste zikin al zagon patifañan ?

ANTON- Bai, zera ! Dozen erdien bat legatz buru, sardin ustel batzuek, eta orelako beste zerbait... zelaoriak berak kraka geyago zeukakan txapelian.

ATRAKA- Orduan, emendik aurera maiz garbitu biarko dek.

ANTON- Bai, beti garbitzen ari nak, baña nik garbitu ala, goiko jendiak zikintzen zatek.

ATRAKA- Ayei ere multa eman az !

ANTON- Bai baña, sagardua emendik eramaten ditek, eta asaretu ezkerro ez itutek geyago etoriko.

ATRAKA- Orduan oyei bai neuriyetan txiskatzia, ez? Patifañ garbitzia ere, sagardotan kargatuko diyotek ?

ANTON- Sagardo jabiak bai, kargatzen zizkiak ogei ta bost kargako upelian, ogei ta amar.

ATRAKA- Ik beriz guri ogei ta amaika, ta partira.  
(Patiñan zerbait erori danen ots aundi bat entzuten du)

ANTON- Zer da ori ?  
(Patiñako atera joaten da)  
Oi ! Arkumia ziruiuk.

ATRAKA- Txerikumia dek.

ANTON- (Isekaz)- Bai, zera, piper moruekin.  
(Batenara sartu ta betiro ateratzen da)  
Katuba dek !

ATRAKA- Ja ! Ja! Ja! Iyiya asmatu ukan !

ANTON- Ez dek orain iñor etoriko ez, moku goxo oren bila.  
Egunero emen zebiltzik alkandora erori zayotela, edo pixoyala, edo...

ATRAKA- Urdai azpikoren bat.

ANTON- E ! Gauz oyak ondo gordetzen dizkitek, bai... alakorik balitz, azkar garbituko nitek patifaña.

ATRAKA- Baita urdai azpikua ere.

ANTON- Orain, nik, oye zikiñak garbitu egin biarko dizkiat.

ATRAKA- Utzi zak, etoriko dituk...

ANTON- Bai, etoriko dek... zelaoria bi pesetan bila.  
(Eratza artu ta garbitzera dijua)

ATRAKA- Orela aterako aiz!



ANTON- Garbitze ezkerero atera biarko diat. Bitartian egin  
zak faore sagarduari kontu artzia.

(Patiñara juaten da)

ATRAKA- Ba, bai ! Ni emen nagon bitartian ez det sagardorik  
aipetik galduko.

BATEKO URRIA

BASERRITARRA- Egun on diyola Jainkoak.

SANTI - Baita zuri ere.

BASERRITARRA- Iskribabuan exia dala esan dirate eta orrengatik etorri naiz.

SANTI - (oraindik estu ezer galdetu) bai, bai, ala da zerbitzeko.

BASERRITARRA- Urte asko ez ditu orratik berorrek ?

SANTI - Urte asko asko.... ogeita-amasei emendik amar urtera, zerbitzeko.

BASERRITARRA- Eskerrikasko.

SANTI - Ez dago ze-eri.

BASERRITARRA- Exe dotoria au ; beorrrena izango da.

SANTI - Neria... bai, bai ala da serbitzeko.

BASERRITARRA- Eskerrikasko.

SANTI - Ez dago ze-eri -ondatik ez gera aterako-baño zer dakartzu gizonxua ?

BASERRITARRA- Nik ? ez duela asmatzen.

SANTI - Nola nai dezu ba nik zure berri jakitia ? (bateko urria artzen utziko ez digu).

BASERRITARRA- Ara ba, exe koskor batekin gabilta burruka bizian...

SANTI - Eta ezin errenditu ?

BASERRITARRA- Ez, ez bat eta ez bestia.

SANTI - Nola errendituko dezu bada exia ?

BASERRITARRA- Ez nijuan ortara aiskiria piskorra dirui orretik e... ?

SANTI - Bo...! orrela bazerritarrakin ta askar samarra naiz.

BASERRITARRA- Bâi ? orregatik maatill ederra jarri bear diyot.

SANTI - Jakin zagun bada zer dakarzun.

BASERRITARRA- Ara ba, nik okasiyua detana da, emakume bat, emakume ori da nere izeba baten exian aziya, aunditua neska zar egifa ; neska zar ori da nere izebaren lagun baten aitaren semearen...

SANTI - Espiritu Santuaren izenian, Amen.

BASERRITARRA- Zer zifiatzen asi alda :

SANTI- Zu asi zera eta nik, bukatu.

BASERRITARRA- Ala ere kostako zayo bai jorapilluau eskatzen.

SANTI- Bai, zure musu zapikua benepein bai.

BASERRITARRA- Segi zagun, neska zar ori da nere izeban lagunaren aitaren, semearen....

SANTI- Amen, amen, amen, amen...

BASERRITARRA- (Au dana presaka)- Gizona zenbat...

SANTI- Iru...

BASERRITARRA- Baita irurogei-ere.

SANTI- Or nayago.

BASERRITARRA- Ondo zale da.

SANTI- Diru zale ez danik, ez da inor ere, eta zu leyal zamarra nola zeran.

BASERRITARRA- Ni ? zergatik ?

SANTI- Nik iru pezeta esan baño lenago esan dirazu benepein baita irurogei ere.

BASERRITARRA- Esan diyot nik, irurogei amen esan dituala guxienian, Lendabizi ikusi beza liburuetan nik esan diotanez, legiak nola errezatzen duen. Izebaren lagunaren aitaren, semearen...

SANTI- Amen, amen. (Astenda zalapartan paperak autzitzen eta liburu guztiyak azpikoz gañera jiratzen. Baserritarra ikaratua iruditegian batera eta bestea korrika bañan esanez).

BASERRITARRA- Aitaren semearen, andriaren, amonaren illo-baren alaba. (ateratzen da itzulka eta nabartzen da erorka aundi baten sofua eta Erromanaren karrasi bat).

SANTI- Zer dabilta or, katuak ? (Erreperaturik). Ara, jaunak, baserritarrak itzul egin ziak.

BERNAINO-REN LARRIYAK

VIII

LENGUAK eta ANDRE KAXILDA ; gero  
INAXI eta PREMIN

Andre Kaxilda- (atzetik sartuaz)- Emen al da gure gaztia?

PILARTXO- Ama.

BERNAINO- Etxekoandre. (Pilartxo ta Bernaiño altzatzen dira)

Andre Kaxilda- Zer modu Premin ?

PILARTXO- Ez da Premin. Bernaiño da.

BERNAINO- Bernaiño.

Andre Kaxilda- Premin ez dala ?

BIYAK- Bernaiño.

Andre Kaxilda- Egin dezute ez egitekua. Aben eskubetan  
uzten dubenak gauza... (atzeko atetik ojuka)  
Inaxi !

Bernaiño- Etxekoandre : Bernaiño naiz.

Andre Kaxilda- Premin nun da ba ?

Bernaiño- Sukaldean.

ANDRE KAXILDA- Abek txatxalak. Orain egin didatena.

INAXI- (Atzetik sartuaz)- Zer nai du ?

ANDRE KAXILDA- Txoro-flauta alena, zer egin didazu ?

BERNAINO- Baña etxekoandre...

ANDRE KAXILDA- Ereman zazu au, emendik sukaldera.

INAXI- Neri esan didate...

ANDRE KAXILDA- Zer esan biar zizuten !...

PILARTXO- Ama, ez al da bada au ?

BERNAINO- Bernaiño, naiz, Bernaiño.

ANDRE KAXILDA- Tira, tira, sukaldera, aguro, aidian  
ereman zazute nere begiyen aurretik.

BERNAINO- Bernaiño naitzela, Bernaiño. (Bultzaka botatzen dute kanpora)

ANDRE KAXILDA- (atetik) Premin datorrela onera. Ia orain bere ordezkaria ekartzen dezun.

PILARTXO- Au lotsa !

ANDRE KAXILDA- Baña zu, nora begira egon zera ez ezagutzeko ?

PILARTXO- Nik zer nekien bada ! Au lotsa !

ANDRE KAXILDA- Filemon-ek esan dit bein baño geyagotan, bere semia Premin dala ; baña zubei esan edo ez berdin da, ta orra azkenian.

PREMIN- (Premin atzetik. Bere ondoren Inaxi)- Zer deute etxeoandre ?

ANDRE KAXILDA- Zu izango zere noski Premin ?

PREMIN- Bai andre.

ANDRE KAXILDA- Filemon-ek esan badit neri.

PREMIN- Ala esango zion bai.

INAXI- Neri nola esan dirate bada ?

ANDRE KAXILDA- Zuri zer esan biar zizuten ! au da au, Premin, auxe.

PREMIN- Pulamentue ori da.

ANDRE KAXILDA- Ara bada, emen daukagu zuretzat andregaya.

PREMIN- Iiip!! (Kabriola bat eginaz)

ANDRE KAXILDA- Gustatzen al zaizu ?

PREMIN- Errepente geo. A, ze mirabe!

PILARTXO- (Artu liteke au're)

ANDRE KAXILDA- Baña, begira Premin : nere alabarekin ezkontzeko, pixka bat fidu biar dezu. Zu, mendian oituka zaude, ta kalia ez da gauza bera.

PREMIN- Agindu, etxeoandre, agindu.

ANDRE KAXILDA- Bai ; emendik aurrera deituko zera ermintxo.

PILARTXO- Fermintxo askoz ere politagua da.

PREMIN - Konprome : Premintxo.

IRURAK- Fer-min-txo.

PREMIN - Fermintxo. Nai duene.

ANDRE KAXILDA- Eta kendu lepoko pañuelo ori. (Iñaxi-k kentzen diyo pañuelua)

PILARTXO- Eta boinaren orde, beste txapel bat jarri.

ANDRE KAXILDA- Ala da. Iñaxi, ekarri zazu lastozko txapela naugusiyaren gelatik.

INAXI- Beriala. (Iñaxi juaten da ezkerreko gelara)

ANDRE KAXILDA- Andre-gayarekin pasiatzera juateko-ta, apaindu egin biazu. Nola denak begiratuko dizuten.!

PREMIN - Geigo beigaratuko die andregaiari ; neuk beintzat ala egin izan dot.

INAXI- Iñaxi ezkerretik txapel lastozkoarekin) Ara emen txapela.

ANDRE KAXILDA- Kendu boina.

PILARTXO- Jarri txapela.

PREMIN - (Boina kendu ta jartzen du txapela oker-oker ; bestiak zuzentzen diote batera ta bestera) Dotoria geo, arraye pole !

ANDRE KAXILDA- Zuzentxiago.

INAXI - Atzeraxiago.

PILARTXO- Aurreraxiago.

PREMIN - Aita Santuak'e, ez dik olako bat izango. (Txapela okertuaz. Bestiak zuzendu)

ANDRE KAXILDA- Zuzentxiago.

INAXI- Atzeraxiago.

PILARTXO- Aurreraxiago.

ANDRE KAXILDA- Iñaxi : ekarri zazu nagusiyaren zira, ia nola ematen diyon.

PILARTXO- ederki asmatu du.

INAXI- Ekarriko det. (juaten da ezkerretik)

ANDRE KAXILDA- Bai, orla zaude ondo.

PREMIN - Orlako neskatillan aldamenen ondo ez ? Bai arraye pole!

INAXI- (Ezkerretik zirarekin sartuaz)- Ara emen.

ANDRE KAXILDA- Ekatzu.

PILARTXO- Besua.

INAXI - Eldu.

ANDRE KAXILDA- Tira. (Jazten dute iruren artian. Oso parragarri gelditzen da).

INAXI- Zer diruri ?

IX

LENGUAK ETA FILEMON

FILEMON- (Atzeko atetik sartuaz eta Premiñ ikusteakuan) Txori malue ! Txorik izutzeko zomorroe diruik.

ANDRE KAXILDA- Arrazoi du.

FILEMON- Au motille ! Baserrin bezela kaleen e. Aparta !

PILARTXO- Oso itxusi dago.

FILEMON- Etxekoandre, sukaldea nua, egongo da zerbait kaxuelakara ta...

ANDRE KAXILDA- Berialaxe bazkaitara guaz.

FILEMON- Eta bitarteko plakik ?... Au motille ! Aparta ! Aparta ! (juaten da atzetik)

ANDRE KAXILDA- Au ez dago orla ondo.

PILARTXO- Oso itxuski arkitzen det.

INAXI- Oso parragarri.

ANDRE KAXILDA- Alaxen da, zuazte berakin nagusiyaren gelara, ia beste zerbait billatzen dezuten.

PILARTXO- Guazen bai.

INAXI- Arkituko degu zer edo zer.

PREMIN- Jun in biar al deu ? (Ezkerretik juaten dira Pilartxo eta Iñaxi)-(Premin gelditu azitzen du Kaxilda'k).

ANDRE KAXILDA- Itxogon zazu, pixka bat. Premiñ. Juango zera.

PREMIN- Zeñ(nai) du, etxeoandre ?

ANDRE KAXILDA - Gauza bat galdetu biar dizut. Aitarekin zer modu izaten zera ?

PREMIN- Attakin ? Gaizki !

ANDRE KAXILDA- Gaizki ? Zer gatiñ ?

PREMIN- Zeatik ? Mozkorre dalako.

ANDRE KAXILDA- Mozkorra zure aita ?

PREMIN- Ene atta, bai : mozkorre ta jokalarie. Etxea ondau, baztar guziek ondau, familie ondau.

ANDRE KAXILDA- Ezin liteke orrenbesteraño.

PILARTXO- (Barrendik)- Fermintxo !

PREMIN- Bai, andre, bai : mozkorre ta jokalarie. (juaten da ezkerretik).

ANDRE KAXILDA- Aitaren ta Semiaren.... Aitutzeko guztiyak ez ditugu aitu oraindik. Leku onian sartzera niñuan nere alaba. Bañan, diruz leporaño zeudelakuan banegon ni ; ta Fernando zoru orrek ere ez dit ezer esan. Iya egin genduben ederra. Ta, Filemon, akulumendi zar ori"re, egon ixil-ixilik, ia ziriya sartzen ote zigun. Aitu biar dizkit orreatik beriak eta bi.

FILEMON- (A-tzetik, opill batian jakiyarekin) Ori dek ori kozinarie. Etxekoandre : kozinari orren tripakik nafuzke nik.

ANDRE KAXILDA- (Tripak e ? Ederrak daukazkit bada nik oraintxe). Adi zazu : itzezin biar degu. Ama naizen aldetik begiratu biar det zer ezkontza egiten duben alaba-k. Ez nago ni alaba edozein modu emateko.

FILEMON- Ze ba ? Zerbait berri al dozue ?

ANDRE KAXILDA- Bai, berri-berriya, oraintxen esan didate, mozkorra ta jokalaria zerala, etxe guziya ondatu dezula.

FILEMON- Milla deabru ! Norik esan dizu ori ?

ANDRE KAXILDA- Zure semiak.



FILEMON- Nere semeek ? Itoko et ! (juaten da atzetik)

ANDRE KAXILDA- E ? Nora ~~di~~gua berriz gizon kaiku ori ?  
Beste aragi-~~fr~~ontzoren bat sukaldian arrapatzera.  
Alperrik da, alperrik da. Gizon orrek itxura onik  
ez du. Ikusi detanerako iruditu zait. Mozkorra  
ta jokalaria ! Aitaren ta Semiaren... Zer uste  
du orrek ? Orretarako daukatala alaba ? Ez, ez ;  
azkar egin biar ditu emengo aldiyak. Azkar gero.

BORDAXURI

Seigarren gertaldia

JOKA-LEKUA- Hil-erriak. Erditik, hil herrietarat jausteko eskalerak. Eskaleren pean, bizpahiru eskualdun tonba.

- PAXKAL - (Tonba baten gainean jarria, pinta bat arno aintzinean, ber bera eleketa ari)-  
Hauxe da gau ederra... Bordaxuri, kasu hiri... Musikariak engoitik apailatzen ari dituk... Oren baten buruko, oi zer tutak... Gizagaizoa Bordaxuri... Errotzen hasia omen da. Hilak eta ezkeletak eta ikusten omen ditu... Eta heiekin mintzatzen ere omen da... Ori aski du hunat jitea elestatzerat... Izanen du konpainia ederra elestatzeko, hemengo egoiliar guziekin... Debru zoroa...  
Ez niz ez ni oraino hortaratua... Nun ote da hil-herri zaina? Hitzartuak gire elgarretaratzeko, pinta arno hunen husteko... Arno buxun-datua da gero...  
Zer gau ederra... Gu hemen elgarretaraten girela nork salatu ote dio jaun erretorari? Debru mutzurdin tzar horiek seguraz ere... Ies, zoin berant heldu zautan hura berriz... Botoila hunen hasteko ere tire-boxoinik ez diat... (Entseatzen da idekitzerat bizpahiru moldez : azpitik joz, gain behera inarrosiz, hortzez) Brien -arifa nola idek ordian? (xutiturik berriz ere entseatzen da idekitzerat, besoazpian, zangoen artean, tonba bati joz eta hola... Kexu gorrian jartzên da). Ha, idek hadi ba... Egarrria niok, idek-hadi, zozoa... (botoila pausatzen du tonba baten gainean, eta haren aintzinean belauniko, otoitzean lotzen zaio) Alo, idek-hadi, idek, gaizoa... (koleran eskuetan hartzen du, bota nahi balu bezala, debruetan harat.) Idek-hadi... Ez nezakala kolera... Idek-hadi edo hausten hut... (Potaka eta milikaz lotzen zaio)-Hoo, kanpotik bederen edaten ahal banu... Hum, ez baitu haatik, berinak arnoa pasatzerat uzten...  
To, ago hor... (tonba baten gainean, pausatzen du eta ixtant bat ixilik dago)- Ha, ez du Jainkoak ideki nahi... Ontsa da... Beraz debrurik balinbada, botoila hau idek dezatela... Ha, ez da ez Jainkorik ez debrurik gehiago. (ikaratua)- Ya, ya, ya, Nor da hor heldu? Jaun erretora ote da hori?... Gorde gaiten... (gordetzen da).

BURRUNTZIYA

Iruditegia erri txikiko etxe bateko gela nagusia. Atzean sarrerako atea. Ezker-eskuitan ateak. Atzeko orman asara (comoda) bat, jostalluz eta antzekiz bete. Alkiak batean eta bestean zabalduak. Alkietako bat txikixamarra.

I-

MANAXI ta KOXME

(Mañaxi etxekoandria da. Berrogei ta zor-tzi urte ditu ; arpegi zorrotza ta izakera zorrotzagoa. Betaurreko aundi batzuek begietan dauzka, ta alki txikian exerita braka batzuei arabakiak jartzen ari da. Koxme, bere aldamenean zutik dago ; ogei ta iru urteko mutil gaztia da).

KOXME- Beaz ezetzian zaude ?

MANAXI- Ezetzian irauten degu.

KOXME- Zure alaba nik maite detanarekin...

MANAXI- Emazteaz jabetzeko ez da aski naitasuna.

KOXME- Bere begietatik ikusiko nuke nik.

MANAXI- Jan ere bere abotik naiko zenuke noski ; ta ori da guk ifola ere ezin eraman deguna.

KOXME- Mañaxi...

MANAXI- Zure buruentzako lain ezin sortu dezu, eta emaztia biar dezula ?

KOXME- Nere bearrak nere lanarekin osatzen ditudala erri guzia jakifien gañian dago.

MANAXI- Ez dakit ba ; gurasuak utzitako ontasunetatik ez det uste asko-askorik gelditzen zaizunik.

KOXME- Burruntzi bat galditzen zait.

MANAXI- Ori da. Ta zuk orain biarko zenuke noski, nere alabak ollaxkuak eramatia zure burruntzi orretan erretzeko.

KOXME- Ez dizut nik ollaskorik eskatzen. Alaba bakarrik eskatu det.

MANAXI- Ez dezu beintzat egakirik, lumarik ere izango.

- KOXME- Ez ta bear ere. Ondo dakizu nere gurasuak utzitako ontasunetatik eten bearrian arkitu banaiz, luzaroan gaxo egon naizela izan dala. Badakizu, osasunez ondo izan nitzan bitartian gurasonkarria zuzen gordetzen nuela ; sendatu naizenetik lanaren bitartez aurrera ateratzen naizela. Badakizu...
- MANAXI- Nik dakitana da, burrunntzi bat besterik ez dezula. Ta etzait iduritzen neskata bat eskatzeko, burrunntzi bat naikua izan litekenik.
- KOXME- Ez det burrunntzia bakarrik eskeintzen ; biotz bat ere eskeintzen det.
- MANAXI- Sartu zazu ba burrunntzian, ta ia nolako jakia sortzen dezun sendi, pamily bat mantentzeko.
- KOXME- Zuk bai, Mañaxi, burrunntzia sartzen didazula zure asaera zorrotzakin.
- MANAXI- Egia beti zorrotza izan oi da.
- KOXME- Len esaten zenidana ere egiya izango zan noski, baña ez zuen laguntzen zorrotzasunik. Orduan zerorrek laguntzen zenidan zure alabarekin nerabilzkien asmoetan.
- MANAXI- Orduan burrunntziya baño zer edo zer geyago baze-nuelako.
- KOXME- Baña, zure alaba, nerekin edo nere ontasunakin ezkondu nai zenuen ?
- MANAXI- Zurekin, zure gurasuak utzitako ontasunen jabe zifan bitartian. Baña, orain burrunntzi bat besterik ez dezu ta...
- KOXME- Egiya, burrunntzi bat besterik ez. Nere amak, ez dakit zergatik, baña, burrunntzi orri zale aundiya ziyon. Aurrekoen aurrekoak utzitakoa zala esan oi zuen. Ez du beaz nolanaikoa izan bear. Baña, dana dala, egiya aitortu dizut : ez det besterik ezer.
- MANAXI- Aurrekuak edo atzekuak utziya, ori beti burrunntziya; ta ez daukat nik alaba burrunntzi batekin ezkontzeko.
- KOXME- Burrunntziarekin ez : nerekin ezkontzia eskatu dizut.
- MANAXI- Berdin zait ; zuri begiratzen dizut, eta ez dizut ikusten... burrunntzi bat besterik.
- KOXME- Nai ez dezulako ; garbi azaltzen dizkitzut nere zintzotasuna, nere lanerako grifa, zure alabaganako naitasuna...

- MANAXI- ba, ba, ba... Alperrikako itzak. Uskeriyak. Oyek guziyak eltzeari koipe gutxi emango diote.
- KOXME- Eltzeak ez du koipea bakarrik bear ; mamiya ere bear du. Senar-emazteen arteko mamiya, beren zintzotasuna ta alKarganako maitasuna da.
- MANAXI- Bai, ta mami ori berriz ametsetako lukainka besterik ez.
- KOXME- Lukainka deritzaizu ?
- MANAXI- Eltzeak ez du koipea bakarrik bearko baña, esaera zarrak bezela : "nun zopa, an salda."
- KOXME- Ikusten det zuretzat ez dala koipia, lukainka, zopa ta salda besterik.
- MANAXI- Badakizu : santu guztiyak oliyokoyak ; eta santuak oliyua bezela guk ere bizikaia biar.
- KOXME- Eta, uste dezu nere lanarekin ez detala sortuko nere emazteak biar duen bizikaia ?
- MANAXI- Ori, asmo bat, uste bat besterik ez da. Eta asmo ta usteakin ez degu ezer egiten. Zuk, ezkontzarako, gauza bat bakarra dakarzu : burruntzia bat. Beaz, zu, ez zera nere alabaren mallan jartzen.
- KOXME- Eta len, bai ?
- MANAXI- Len, bai. Baña, orain, zu jetxi egin zera, ta nere alaba berriz, goyen, zuk ezin atxitu dezun goitasunean gelditu da. Beaz, zuk, beragoko andregai bat arkitu bear dezu ; nere alabak goragoko senargai bat. Bakoitzak bere mallan.
- KOXME- Orduan, len esandako guziya, lengo eskeñiak, lengo agintzak alperrikakoak dira ?
- MANAXI- Alpar-alperrikakoak. Mallaz aldatu zerate, beaz itzaz eta eskeñiaz ere aldatu bear dezute. Gañerako artu-emanetan gertatzen dan bezela, txerri batekin tratua egiten dezu, baña pixatzeoan uste baño gutxiago pixatzen badu, esan baño gutxiago ere ordaintzen diozu.
- KOXME- Baña, zuk, ezkontza txerri-tratua dala uste al dezu ?
- MANAXI- Anima salbo, txerri-tratu jator-jatorra.

CHALBATEN MERTXIKA-ONDOAK

Gitarra-joite, marteilu-ukaldi... Beñat heldu da erdiraino. Bettirik geldi-arazten du.

BETTIRI.- Urrun johaiz hola ?

SANTSIN- Ez da on bihotzarentzat...

BENAT Santsini- Bihotzaz bertzerik ez balitz ! (Bettiriri buruz)- Eni behar zaitaia gertatu hori ere !

BETTIRI- Ah ! Eta... zer gertatu zaik ba ?  
(Jar-arazten du Beñat bere aldean)

BENAT- Dadakik Bidarteko sagardoia erosi dudala.

BETTIRI- Hai, hala aditu diat, Chalbaten sagardoia ?  
(beñat xutitzen da, erdian plantatzen, batean Bettiriri, bertzean Santsini mintzatzen delarik).

BENAT- Sagardoia bai, baina ez etxea. "Etxea utzadak, erran zautaian Chalbatek : hartan usatua nuk ; bertze nun-nahi enoa nintazkek ; lur guzia har-zak murru-arras, nahi baduk!" - Hots, utzi dioiat pentze bat iguzkitarat jalgi ahal dadin. Segidan pagatu diat, bere diruak plazatu tik, errenta badik, arras kontent gituk, bon !

SANTSIN- Bon !

BETTIRI- Bon ! Eta gero ?

BENAT, Bettiriri- Ikusi duk, Bidarteko sagardoia ?

BETTIRI- Zer ba ! Dena mertxika-ondo, eta oro zaharrak !

BENAT, Bettiriri- Errotik egin beharrak lituzkek aspaldian!  
(Santsini) Baina Chalbat futitzen zuian (behatzailereri) Ni ez naiz mertxikakoa } Bertzenaz ere gure lurra ez da hortakoa...

BETTIRI- Ez ote ?

BENAT, hasarretuz- Ote ala iratze, nik arbolak errotik egin nahi tiat, gero ogi ereiteko !

BETTIRI, Antolatu nahiz - Segurki ideia hori ere...

BENAT, bortizki- Ideia hori bertze edozoin bezain ona duk(Beharrirat, hitzak ongi berexiz). Eta gero, Bettiri, ez duk nehoren aferara !

BETTIRI, gaitzitzea- Bon, bon...

BENAT - Pagatu diat, enea duk, nahi dutana eginen ahal diat, bon !

SANTSIN- Bon !

BETTIRI- Bon !  
(Gitarra joite, marteilu-ukaldi. Beñat jarri da Bettiriren ondoan, eta jabaltzen da...)

BENAT- Egun goizean, ene buruarekin ari nindian, aroa hala-hulakoa duk, ez diat deus egitekorik...

BETTIRI- Baduk beti zerbait egiteko... Bainan... egin behar baita !...

BENAT- Bazukek. (bere hartaratz itzuliz)- Beraz egun goizean gogoan pasatu diat enuela deusik egiteko, eta has nindaikela arbola kentzen. (Xutitzen da eta erdirat doa)- Eta oxtion joan nuk Bidarterat.

BETTIRI- (lana utzirik behar dago, Santsin-ek gitarra ixil-arazi du.)- To, to, to, to...

BENAT-(jestua eginez)- Soka estekatzen diat abar lodienari, tiratzen diat, tiratzen diat, eta heldu duk, arrabots bat egin dik.

BETTIRI- (apalik)- Krak !

BENAT- Justu ! Eta horra nun Chalbat jiten zaitan. (Chalbatena eginez) "Zgr ari hiz hor ?" (Bettiriri) Etzian usaiako begitarate itxura. Nik errepostua : "Ikusten duk !" -"Deneri egin gogo diotek ?" -"Deneri !" (Zolarat doa). Haia-haia bazoak etxeraino eta ikusten diat itzultzen armarekin. Ez sorbaldan, bainan eskuetan : eskuineko eskua oilarrean, ezkerrekoa kanoien azpian. Eta arma hori xuxen eta tieso zaukalarik, heldu zuian, heldu, zanpa-zanpa (Bettiriren beharritat). Oxtion baino itxura gutiago bazian. Orduan erran zioiat irriz (irri egiten du) : "Nun habila, Chalbat ? Thizin ? Xoxoloketa ?" (Bettirik eta Santsin-ek irri) "Ez, jauna : zerketa !" eta xuxen jin zaitak gainerat. (Bettiriri). Barria Bezala gelditu nuk...

BETTIRI- Ba araz !

BENAT-oihuka, besoak altxatuz- "Uzten tuka, ene arbolak, uzten tuka ?" - Etzian gehiago itxurarik batere. (Santsin-en gitarra hartzen du arma kondu). Kanoia hor emaiten zautak athorra-pean eta jakin-zak etzela gehiago gizonik haren baitan. Erraiten zioat samurtu gabe, erria prest baitzuen: "Chalbat, etzakala haurkeriarik egin !", eta harek beti gauza bera : "Uzten tuka, ene arbolak, uzten tuka !" Hail hi holako batekin arrazoin-katzerat ! Soka utzi diat, eta jin nuk... Horra!

BETTIRI- Hauxe da ixtorioa !

SANTSIN- Hauxe da ixtorioa !

EXTRA STRODING  
William



EGIAZKO ESKUALDUNAK

KATTALIN- To, Maider!...

MAIDER- Huna nun den Kattalin ! indarretan da hau ! Airoski ekartzen duzu ferreta zuk, maitia...

KATTALIN- Ba, ez da pisua segurki... Loria da hunekin iturrirat joaitia. Nun zabilta, Maider ?

MAIDER- Hori, denbora eder hunekin behar nituela oialak pentzean hedatu... Zer berri da, haurra, iturrian ?

KATTALIN- Ba berria frango eta ez nola nahikoak.

MAIDER- Errazu fite, Kattalin (intrigatua)... Zer nahi jakiten da errekan...

KATTALIN- Xabaldinek kondatzen zuen Bordarian zer gertatzen zen... ikara emanen dauzue segur haren erranez.

MARIA- Aie ! ei! haurra, zer da ba ?

KATTALIN- Arima herratuak ba omen dabilta gau guzietan tenore berean eta erraiten omen diote pettani 5 000 libera ezar ditzala leioan bere zorren pagatzeko!...

MAIDER- Jesus ! Jesus ! eta orduan ?...

KATTALIN- Orduan ! Pettanek izitua erran dio "Ona balinba haiz, mintza ari eta Debruárena balinba haiz, aparta ari!"

MARIA- Gero haurra ? Hauxe da ixtorio ikaragarria !

KATTALIN- Sekulan baino gehiago arrabots aditzen zuen aratsetan eta zer egin du Pettanek ? ezarri du, entsegu bat bezala, argi bat piztua leioan!...

MAIDER- Arima herratuak hil dio ?... bederen ?

KATTALIN- Hil!...

MAIDER- Ah ! badakit bat zer diren !... ezagutzen tut segurki!

KATTALIN- Biharamunean bola bat kafe esne ezarri du eta laminak hurrupaka dena edan dio!...

MARIA- Ixil zaitte, haurra, arimak ez du hurrupatzen!...

KATTALIN- Ba, ba, ama ; aditu dute hurrupa...

MAIDER- Aie ! Aie! Kattalin ! Jesus Maria ! Zaude, Maria, bada bertzerik oraino.

KATTALIN- hirugarren atsean Pettan gaizoak herri guzian bildurik bere zorren pagatzeko sosa, ezarri ditu leioan 5 000 libera galdeginak.

MAIDER- Eta ?...

KATTALIN- Denak joan dasko,, susko usain bat uzten zuela. Iduri **omen** zuen ximixta!...

MAIDER- Jainko zerukoa ! eta Andedrena Maria!ifernukoa zen !!!

KATTALIN- Ba, ba, Maider, jandarmak han dabilta geroztik eta ixtorio horrek ba omen du ba bertze segidarik!... Bankako alde hortarat behar omen laike joan ongi jakiteko zer pasatzen den !

MAIDER- Ba, Baigorriko eskualde hortan gertatzen dira holako ixtorio hoik !

MAIDER- Guardia emazu ; haurra, eta ez sobera urrun hor gaindi egun hautan, hor duzuia bederen medaila benedikatua?

KATTALIN- Ba, Ama... Nahi nuke joan nik ere arátsean Gaxuxarekin, arrabots hek nahi tut aditu!...

MAIDER- Ez, Kattalin, ez joan, zer gerta ere, izaitekotz, ere joanen gira denak elgarrekin (**x**utituz) arats batez. Bainan, bainan hemen nago kalakan eta ene linja hedatzekoa...

KATTALIN- Bego ene gain, Maider, hedatuko dauzut nihorek, behar ditut gure mihisiak itzuli. Emazu saskia... sarri arte. (eta joan da)

"EGIN ZAK ON..."

- IZAZKUN- (Zerura begira)- Amatxo ! Bukatu dira egun ilun, lari eta negargariak ! Iritxi naiz maite nauten lekura. Eskerak nere Ama. Biyotz ongile ta laguntzaleak arkitu ditu. Zori onekoa naiz. Pozez nago.
- INAXI- Gu ere bai zurekin. Exeri emen, biyon erdian.
- IXABEL- Bai, ementxe. Eta markesa or dagon bitartean zure kondaira bukatu zaiguzu.
- IZAZKUN- Ez daukat asko esan bearik. Esan det nere aita insurrectoak il zutela, ama gaxotegi edo hospitalean, ni beriz, eruki-etxe bateko ikastetxera jaso ninduten. Baño au insurrectoak gero jakinik, nere aitari ziyoten gogo okerez ta gorotoz, nere bila etori ziran. Eta nai ta nai ez, ezkutuko ate batetik iges egin bear izan nuen.
- INAXI- Jesus ! Ori ezin ikusiya ! Ori zitalkeriya !
- IXABEL- Orixe da biotza puzuniz betea edukitzea.
- IZAZKUN- Kale goriyan orduantxe ikusi nitzan. Kupirez etziran iforik aterik zabaldu. Eleizakoa bilatu nuen zan aña zabal. An sartuta Ama Virjiña baten aurean negarez intzirika asi nitzan ; oso naigabetua bainggon. Batbatetan, nere atzean sortu zan andre eder ta aberats bat ; besotik onek artu eta esan ziran : nere alabaxoa guazen biok eta ez bildurtu.
- INAXI- Zein ote zan ?
- IXABEL- Ama Virjina, noski.
- IZAZKUN- (Begiratu ilun bat Ixabeli egin ta)- Zuzen-zuzen kayera eraman ninduen. An itxasontziko nagusiakin itz batzuek egin zituen, eman ere egin zion zerbait, eta ni bere alaba bat baño begiramen eta areta andigoan gizon orek Barcelona'ra ekari ninduen.
- IXABEL- Ze ederki e ?
- INAXI- Gero zer egin zenduen ?
- IZAZKUN- Bada Mercedes'ko Eleizara joan. An dago mirari andien Ama bat. Bere aurean jari nitzan, eta nere lengo andre zorionekoa an sortu zan esanaz : Ama virjina maitatu ezazu asko. Zu gaurtik asi ta, Jainkoak beste gauza bat erabaki arte, eskean ibiliko zera, baño ez bildurtu, laguntzalea izango dezu-ta. Andre bedein-katuak alde egin zuen, eta ni iya bi urte onetan eskean nabil.
- INAXI- (Berekasa)- Aingerua eskale.
- IXABEL- Etzera bada geigo ibiliko. Emendik aurera gurekin, aizpak bezela (Irrurak laztanduko dira).

ENEKO BLZKAL eta MARIA LORKA

Erretora eta Marta

- MARTA - (gosariarekin heldu)- Zuk ekarritako lusagar berri hoiak, jaun Erretora, barkatu erraitea : ez dire batere lehengoak. Azala zakarragoa dute aixe.
- ERRETORA- Zer ba ! Primadera aintzineratu baita ! Zer uste duzu, Marta gaixoa, guri ere ez zaigula azala zakartu ?
- MARTA - Jarri zaite hementxet, jaun Erretora. Har zazu kafesnea gustuan, bero beroa. Ogia ere gorritua dizut usaian hartzen duzun bezela.
- ERRETORA- (jarririk)- Ogia gorritua nik hartzen ? Nork erran dizu hori ?
- MARTA - Jesus ! Nik ez dut ba asmatu. Herrian hola erraiten zuten.
- ERRETORA- Erran ! Erran ! Beti erran ! Egundaino ez dizut nik sekulan, entzun duzu, sekulan ogia jan gorriturik !
- MARTA - Eta... Nola asmatzen dituzte ba, holakoak ?
- ERRETORA- Zer nauzu ! Jendea mintzo baita aixe !
- MARTA - Bai, bai... Hartaz, mihi luzeak ba dire franko Gantzarain-en, jaun Erretora. Behazu, orái ere, zer zuten asmatua ! Barkatuko duzu, jaun Erretora!
- ERRETORA- Jakinen bai dut nik aixe, nor ari den hor bazterrak arrotzen. Ogia gorritua, nik ? Ixil araziko dauzkitzut nik aixe, suge tzar mihi luze kalakari hoiak ! Zaude deskantsuan ! Ogia gorritua beraz nik, he ? Bego, bego...
- MARTA - Errazu, jaun Erretora, ta... Gure mutiko hori nola atxeman duzu ? Hirugarren gaua du gaur, ogean sartu gabe. Ez dizu jaten, ez edaten, ez pausa hartzen. Numeroak egin eta pianoa jo... Izarretaraino abiatu behar omen zaigu laister.
- MARTA - Nik ez dakit nola sinisten dioten ! Paris-ko jaun haundienak bere menean ditu... Ministru, anbasadore, jakindun... hor ibilki zaizko, zakur kumeak amaren inguruan bezela, zer aterako dioten !
- ERRETORA- Aspaldi munduan izan den bururik azkarrena omen duzu. Eta ni, katixima egiten niolarik, batere ohartu ez ! Ze nauzu ! Begiak behar bai dire, argia ikusteko ere !

MARTA - Errazu, jaun Erretora, harrituko zaitut beharba baina, nahi duzu nik egia erraitea ? Nik ez bait dut sinisten horrek holako buru izigarria duenik. Kasko horren barnean zerbeit ibilki zaiola biraka bai, nahi dut. Baina gauza onik ez. Horrek talendu pittat balu, uste duzu bizi geran bezela biziko ginduzukela gu egun ? Hori ez !

ERRETORA- Nola bizi zaitze, ba, Marta ?

MARTA - Nola bizi ? Mixerian !

ERRETORA- Tira, tira ! Asia zera, zu ere, ametsetan ? Iñaki Bizkai, egun, Paris-en mixerian ? Tira, amaztekoa, tira !

MARTA - Mixerian, bai jaun Erretora, mixerian. Ameika aldiz afariari paso eginik lokartu beharrez. Erroa baita ! Eta dituenak oro, purra, purra, inguran berduratzen ! Munduan norbeit goseak hilen zaigun artean, ez omen dugu guk behar aina jateko eskubiderik. Pentsa nola ibilki den horren burua ! Eta norbeiti munduan bere libertatea kentzen ba diote, bertze denak behar omen genituzke, golpez, gure buruak eskeini preso. Bizi zaitte, holako batekin etxean ! Bere fedearekin ere... Atzo zen noski... Hura hor, numeroak egiten. Eta ni hementxet, puska zahar batzu antolatzen. Golpez jaiki, besotik hartu eta ereman ninduen leihorat : "Nor bizi da hor, eliza hottan, izeba ?" - "Gure Jainko Maitea" erantzun nion ahal bezin pulliko. Haren oihuak : "Gezurra! Gezur haundia ! Zuk ez duzu hori sinesten ! Zuk hori sinetsiko bazinu, ez zindazke eliza barnetik ateratuko ! Jan gabe, edan gabe, lo egin gabe, hantxet iraganen zituzuke egunak eta gauak, izarren egileari so harritua, belauniko emanik ! "Mintza zaitte horrekin, gero !

ERRETORA- Ze nauzu, Marta ! Beharbada arrazoina du ! Guk lainoz ikusten ditugu gauzak. Eta horrek aize egoaz. Horrek bertze begi batzu ditu !

MARTA - Begietan ez du horrek deus, jaun Erretora. Buruan du horrek bere eritasuna, buruan.

ERRETORA- Marta...

MARTA - Zer duzu, jaun Erretora ?

ERRETORA- Behar nauzu lagundu.

MARTA- Zertan, jaun Erretora ?

ERRETORA- Eneko-ri berria emaiten...

MARTA - Zer berri, jaun Erretora. Ikitzen asia nauzu...

- ERRETORA - Marta!... Gure Gantzarain akabo da !
- MARTA - Gure Gantzarain akabo ?
- ERRETORA- Bide berri hori... bakizu ? Pasa arazi beharra dute herriaren erdi erditik. Plaza, eliza, hilerria... denak azpian hartzen ditu. Atzo goizean jakin arazia didate ofizialki. Eta nik hiluntzean tren hartu.
- MARTA - Bainan nun dute hoiak ere burua ? Mundua ez dute aski zabala, bidea, doi doia, herriaren erditik pasa arazi behar izaiteko ?
- ERRETORA- Bertzela, gure mendiska hura behar omen zuten zilatu.
- MARTA - Zilatu ? Aski zuten biratzea... Ni ez nauzu inginadore, jaun Erretora, baina...
- ERRETORA - Hori erran bai diotet nik ere !
- MARTA - Eta ?
- ERRETORA- Hori egitekotan, Paris-tik Lisboa-rat abiatuko direnak... minuta erdi baino geixago beharko omen luteke galdu !
- MARTA - Eta... horren presatuak dire, beraz, beren buruak suntsitzeko ? Gantzarain-go jendeak nun behar dituzte eman ?
- ERRETORA- H.L.M. hoietako etxe animale bat egin beharra omen dute bide bazterrean. Eta Gantzarain-darrak hantxe barnean ezarri. Neri ere eliza berria agindua didate. Zilo izigarri bāt egiten asiak izan behar zaizkizu, nun-beiten, hilerri zaharreko ezurrak harat biltzeko. Eta... hilerri berria ere agindua dute, ez dakit nun !
- MARTA - Zuk ikus, jaun Erretora, zer egin behar duzun. Ni baino buru argiagoa duzu. Baina hauxe erranen dizut : berri hori emaiten badiozu Eneko-ri, geroari kaxu. Gure mutiko horrek burua galduko baitu arras ! Arras ! Eta ez berak bakarrik. Maria-rentzat ere beldur nauzu, nahigabe haundiskoegia izanen den !
- ERRETORA- Zer egin behar dut, beraz ? Herria sunsitzen utzi ?
- MARTA - Ez, ez... Zuk ikus, jaun Erretora. Baina beldur naiz, hemen orai piztu behar den suak ez gaituen denak erreko, eta laister !

ERRETORA - No ! Zer dire oihu hoiak, beherean ? Ez dituzu entzun? Xo...!

MARTA - Zuri iduritu, jaun Erretora. Zu ere kezku bai zare. Bazkaria egiteko dut. Heldu dena heldu... Jainkoak ereman gaitzala eskutik !

EZKILAREN ERRANA

Bertze ordüz neskatxa prestu bat joan zen jaun zuhur baten gana konseilu galdez :

-Jauna, ezkontzeko parada badut, bainan ez dakit ontsa zer egin, ala naizen ezkonduko, ala ez !

Jaunak erraiten dio :

-Ezkont zitazke !

Neskatxak :

-Bainan, jauna, ezkontzen baniz, ikusten dut gati-botasun eta pena handien erdian sartzera noala. Senar duenak jaun badu eta bertzen meneko izaitea ontsa izanaren biharamuna omen da.

Jaunak :

-Ah ! orduan, ez ezkont !

-Bainan hola gelditzen baniz, bakar-bakarra, umezurtz bat bezala nitake, nehoren laguntza mikorik gabe, éhori arlotua bezain tixte...

-Hobe duzu beraz ezkontzea...

-Ba segur ; bainan lagun ona ez bazait gertatzen, zer bizi ikaragarria ! Urka-bilurza izanen dut lepôtik, eta Jainkoak daki zonbat urtez !

Jaunak :

Eta, ez ezkont !

Neskatxak :

-Ha, Jauna ; Hauke da perdunantza ! Ezkontzeak bere irriskuak, ez ezkontzeak bere tristeziak, ez dakit bada zer egin !

Jaunak :

-Ori, huna ene azken konseilua. Zoazi elizara, jo zazu ezkila, bizpahiru danga ; harek erranen dautzu menturaz zer egin behar duzun.

Neskatxa joan zen elizara ahalik-eta lasterrena. Harat orduko tiratzen du zeinu-korda. Meza aintzineko ezkila ttipia zen :

-TILINTIN, TILINTIN, TILINTIN !

Berehala konprenitzen dut erraiten diola :

-BALENTIN, BALENTIN, BALENTIN !

Badoa beraz jaun zuhur haren gana eta erraiten dio :

-Jauna, ezkila aditu dut, eta erran daut garbiki Balentinekin ezkontzeko !



Jaunak :

Beraz, ezkont zaite !

Balentinekin ezkondu zen...

Handik denbora labur baten buruan, huna emazte hori jaun zuhurraren etxean berriz ere konseilu beharrez :

-Jauna, konseilu gaixtoa eman dautazu, ezkont nadin, senarra usu horditzen zait eta lihoa bezala jotzen nu !

Jaunak :

-Ez dautzut nik erran ezkontzeko ; zuhaurek zinion ezkilak erran zautzula baietz : nik ezkilaren ganat igorri zintudan ; menturaz ezkila gaizki konprenitu zinukeen !

Emazteaz badoa berriz ere elizara. Ezila lehen bezala jo gogo du, ikusteko nola konprenituko duen oraikoan.

Zeinu-korda tiratzen du :

-TILINTIN, TILINTIN, TILINTIN !

Eta huna nun konprenitzen duen berehala :

-MUTXURDIN, MUTXURDIN, MUTXURDIN !

Itzultzen da lasterka jaun zuhurraren ganat, nigarra begian.

-Ah, Jauna, biziki gaizki aditu nuen lehen aldian : ezkilak erraiten zuen : "Mutxurdin, mutxurdin, mutxurdin!" Ez nitzen ezkondu behar !

Jaunak azken hitza erran zion :

-Haur gaixoa, orai ez duzu ordu ; eta zure gaitzak ez du erremediorik pazientzia baizik. Har-azu pazientzia ! Eta hemendik goiti gauzak beti gogo-alde konprenitu orde, har-aitzu diren bezala, Ezkilek eta kontseilariek ez dautzute sekulan erranen ez Balentin ez Mutxurdin, baina tilintin !

GABON

Mutillak, Lutxi, Axentxi eta Prudentxi

- LUTXI - Gaxtain bero bernuuak !  
(ojuka)
- AXENXI - Bixigu frexkuuuuuak !
- PRUDENTXI- Bizi, biziiiiiiiyak !
- JOXE - Entsata zangun bada.
- GUZTIYAK- Bai, Bai. (bulla ta zalapartan)-
- JOXE - Guztiyak al gaude ?
- ERRAMUN- Aeberiano falta dek.
- INAXIYO - Ez dek ori etorriko, zeatik aitai zigarruak ostu  
ta fumatzen topatu dik kai-arriban eta etxea  
eaman dik.
- JOXE - Orduban agilando ederra emango ziok !
- ATANAXIO- Obe, parte geyago izango diagu.
- INAXIYO- Aizak, Atanaxio, ekatzak txilibituba ?
- ATANAXIO- Ez tainistu !
- INAXIYO- Mutil, eztiau jango.
- ATANAXIO- San Tomasetan bost kuarto pagatu ta iretzat  
irukiko yat !
- INAXIYO- Demonio kaikuba !
- ATANAXIO- Kaikubao aiz i.
- ERRAMUN - Kanta zangun, bestela gaizuma etorriko dek asi  
bañan len eta tinieblak kantatu biarko dizkiagu.
- JOXE - Zer kantatuko degu ?
- INAXIYO- Dios te salve ongi etorri...
- BESTIAK- EZ, ez.
- ATANAXIO- En el portal de Belén...
- BESTIAK- I bai agola Belenen.
- ERRAMUN 6 Agilanduen billa...

JOXE - Ori bazekiagu.

INAXIYO- Errgiak datoz...

ERRAMUN- Etorri ta jun ere egingo ditek Errregiak gu asi  
bañan len !

INAXIYO- Ate-txokuan ollar bi...

JOXE - Ate-txokuan pentsatze'ek ik beti, zigarrua fumutzen  
egotiatik. Zortzikua.

GUZTIYAK-Bai, bai. Zortzikua.

JOXE- Tia, jarri ondo. Ala, Bat, bi, iru.

(kantari)

Etxeko guztiari  
Gabonak emanez  
gatoz zeletzera  
beterikan pozez...

Ixoo mutillak!!

ATANAXIO- Inaxiyok desafinatzen dik.

INAXIYO- Emango diat belarriondoko bat !

ATANAXIO- Ezaun dek ez aizela San Bizenteko kokketan jayaa.

INAXIYO- Ik bai kantatz'ekala gaizki.

ATANAXIYO- Nik ?

INAXIYO- Ik bai, Lorentziyoko kalia ez diat baño asto  
aundiyagorik, ikusi.

ERRAMUN- Sartu zio !

GUZTIYAK- E, e eeee -ojuka-

JOXE - Tira, tira, ez diau asarratu biar gabonetan.  
Segi aurrera.

(kantari)

Kantatu biar degu,  
Gabon arratsa da,  
umore onarekin  
pasa zagu gaba.  
Azoliyo, bixigu,  
konpota, gaztañak,  
gaur gaberako dira  
gauzarik onenak.  
Etxian gurasuak,  
semak eskian,  
triste gelditu dira  
suber/bazterrian.

Aita pipa erretzen,  
ama ardatzian,  
zer afari ote degu  
gabon arratsian !  
Jo gora ta jo bera  
gabiñtza gu beti,  
Belena nun ote dan  
billa al baledi.  
Dirurik ez degula  
gezurra diruri,  
zeñek jan al litzaken  
kapoi bat edo bi !  
Alde guztietatik  
bixigu turroyak  
agertzen dira, baita  
galantak kapoyak.  
Gu bakarrikan gaude  
baraurik artian,  
dirurik gabetanik  
gabon arratsian.  
Nekatu gera eta  
baguaz emendik,  
danak ibiltzen gera  
dirubaren gatik.  
Noiz dirurik eman ez  
borondate onetik,  
ez diyogu elduko  
iñori lepötik.  
Baguaz, etxequak,  
gabon, gabon, gabon,  
desiatzen diyogu  
txilla bat urte on.  
Eman biar dizkagu  
oraiñ esker milla,  
emen Jesus maitea  
arkitu derilla.

GABONETAKO IKUSKIZUNA

Tomas da voces?

Mutill, aditzen dok, mutill ?

Chat- Beti arran eginik,  
Naduka adikaturik.  
Erri bateko kanpaetzat  
Eztau bere parerik.

TOM.- Ez al nok aditu ?  
Zori gaiztoan artu indudan  
Neure etxean kriadu.

CHAT.-Lo egiten izkuzu;  
Goiza etorri etxazu.  
Puntu onetan oera naiz da  
Enaiz ondo berotu.

TOM.- Ara : norbait da/tean.

CHAT.- Gu ondo gautza oean.

TOM.- Mutil nagia, jagi adi.

CHAT.- Jagi nendi, al banegi.

TOM.- Arraka !  
Gura al dok ibili nadin  
Makilaka ta agaka ?

CHAT.- Ar zaraz beti gure nagusi ?  
Ala menean ezteuz itxi !  
Olloa nola iskintokian,  
Gizentzen jaku lotsagerian.

TOM.- Aguro !  
Ondo ikasteko bear neuskio  
Zanka-zanak ebagi.  
Bera datzan oearekin  
Su emon prestu ezari.

CHAT.- Eso si !  
Orrelako orazinoak  
Zure aoan ugari.

TOM.- Txato, mutil lotsagabe,  
Desbergonzadu perroa.  
Jagi banadi, itxiko deustat  
Moltsuarekin aoa.  
Aik gora, mutill !

CHAT.- Flema oberik ekusi dozu  
Urtetzen daben zerekin.

S.J.- Ostatu eske gabiltz, ez arren beapu,  
Zeuroen trabajua pagatuko jazu.

CHAT.- Quentzat ostaturik eztago emen.  
Akomoda zaitez bazterren baten.

S.J.- Belenen ostaturik guretzat ezpada,  
Arren, erakuskuzu nun irago gaua.

CHAT.- Or dago portale bat uriaz ateti.  
Izkuzu lo egiten, zoaz emeti.

Vase.

B.- Besterik ezin bada, guazen bada ara :  
Jaungoikoa dan lekuan ezer ezta falta.

GURE XOKOAN

(Pattinek bere kobla bururatzearekin, horra non heldu den Laurentx zapataina, bizpahiru zapata pare oihal beltz baten barnean sorbaldetik dilindan dauzkala).

LAURENTX- Debrintxoa ! Alegera zirezte hemen !

BENAT- Zer nahuk, Laurentx ? Merkatu aratsa !

LAURENTX- Bai, bai, segurki eta halere ! Egun moltsa onsa hanpaturik, bihotza alegera !

BENAT- To, mutikoa, egia diok enetzat segurik. Merkatuño hunek batere ez nik gaizki utzi.

LAURENTX- Nonbeitik ere !

BENAT- Idi pare bat joanden merkatuan eresia sei mila libera, sei mila bortz ehun saldu ditiat egun !

LAURENTX- Bortz ehun libera hamabortz egunez deusik ein gabe !

BENAT- Jaterat eman zakoteat ba gero !

LAURENTX- Berrogoi sosen sorroa !

BENAT- Astokume batek ere elukek aski hori ! Ha zapatain horiek beti kexu zirezte.

LAURENTX- Bai eta laborari horiek beti arregura : hau ez johan, hura ez johan ; batean sobera bero, bertzean sobera hotz !

BENAT- (gozoki irriz)- Ha ! ha ! ha !

LAURENTX- Horiek oro estakuruak zuen mozkinen kario saltzeko.

BENAT- Ez gutuk ez gero arras hobendun gu. Laurentx, gauza guziak hoin kario badira !

LAURENTX- Ez ! Gu nik uste ?

BENAT- Ba, to ! Egia erran, etzirezte hobenik gabe !

LAURENTX- Gu ?

BENAT- Zuek bai ! Zuen irabaziak nahi ditutue beti emendatu !

LAURENTX- Eta gero ?

BENAT- Eta gero bertze guziak emendatzen.

LAURENTX- To, to, to ! Hau pollita dugu !

BENAT- Altabada hala duk ! Zuen irabaziak emendatzearekin, zer egiten du nausiak ? Zapatak kariago saltzen. Zapatak kariago erosten dituenak bere saltzekoak kariago saltzen. Ikusten duk, Laurentx, batetik bertzerat goiti nola doazin puska guziak.

LAURENTX- Ametsetako lukainka ) (bertze bier) - Zer zautzue amets hori ?

ELLANDE- Ez dela arras gezurra, adixkidia !

LAURENTX- To ! Lepoa joko niro laboraria zirela zu ere ?

ELLANDE- Hala nuzu bai eta ez dizit dolurik batere.

LAURENTX- Baditake ! Zu ere sakelak betbrik etxerat johan ?

ELLANDE- Bere gisan !

BENAT- Iduri duk, Laurentx, gutaz bekaizti hizela.

LAURENTX- Bada zeren !

BENAT- Zapataingoa utzirik, zertako ez hiz laborantxari lotzen?

LAURENTX- Ez, gaixoa, ez ! Gure lanak ere badu ba zerbait onik.

BENAT- Deus guti, ene ustez.

LAURENTX-

Gaixoa behatu eta laborarien pildari,  
Errazu zoin zapatainek nahi luken laborari  
Egun osoa zirezte herrestan lanean ari,  
Guk zortzi oren ein eta agur diogu lanari.

BENAT-

Zapataina zortzi oren ari duk benaz lanean.  
Bainan erradatak otoi kanpoan ala barnean ?  
Denak oraino erdi-lo sartzen zirezte goizean,  
Zurpailduak, horituak ateratzen aratsean.

LAURENTX-

Bainan gizona, aski goiz jalitzen gira lanetik,  
Itzuli baten eiteko gero lanaren ondotik,  
Orduan nik iguzkia hurrupatzen dut gogotik,  
Gaizoa, zu ilun arte ari zirelarik beretik.

BENAT-

iguzkia hurrupatzen, bai eta segur bertzerik,  
Zapatainak ez balire, elitakek ostalerik,  
Egun oroz andanaka ostatuetan sarturik,  
Etxerat johan zirezte jornalak hemen utzirik.



LAURENTX-

Laborariak ez dute hortan zapatainer zorrik.  
Igande ala merkatu, oi zonbat baden mozkorrik,  
Halarik ere ez balitz ostatuan zapatainik,  
Mahasti haitzurtzen segur etzinuketela lanik.

BENAT-

Laborariak ez balu mahastirik haitzurtzeko,  
Halarik ere elukek hak lan eskasik hortako !  
Zapatainek eta bertzek mundu huntan bizitzeko,  
Laborari gizagaizo hoien besoak beharko.

LAURENTX-

Haren beharra dugula laborariak badaki,  
Ez da ez uste gabean aberastua itsaski ;  
Hark diolarik inbido, guk erran behar iduki,  
Gure larrutzeko baita hortaz baliatzen aski.

BENAT-

Herrestan bizi baziren laborariak gerl'aintzin,  
Hortakotz behar dutea orai ere bizi berdin ?  
Guk eroslea larrutzen ? Segur larru horiekin,  
Zapatainak elirola zapata handirik egin.

LAURENTX-

Zapatainek nola nahi ez dukete lan eskasik.  
Zuetaz kanpo bihirik ez baitabila untutsik !  
Guk irabaziko dugu oraino diru ederrik,  
Zortzi oren egunean lanean ariz bakarrik.

BENAT-

Nornahik zernahi erran, bai biba laboraria.  
Gizon guzien errege Jainko Jaunak ezarria,  
Lurrak emaiten du beti dener lanaren saria,  
Bihotzeri zoriona, gorputzer osagarria !

ELLANDE-

Hori hori, Adixkidia ! Oi ! zer egia! Ez duzu esku  
txarretan ez laborantza zure eskietan.

(Beñat eta Laurentx koblan ari direlarik, hoier so  
gelditu da Ganix bidearen gainean, esne untzi bat  
eskutik dilindan...)

GANIX-

Barkamendurekin bainan nausi nautzue hieri.  
Han edo hemen sekulan ez bainiz aiher lanari,  
Zortzi oren zapatain niz, handik landa laborari  
(Benati) Zu bezala ni errege, (Laurentxi) hi bezala  
zerbitzari.

PATTIN- Hori hori ! Dobra azken hori !

ELLANDE- Nik dobla nik :

Denbora berean hori  
Zapatain ta laborari,  
Errege ta zerbitzari,  
Erretor eta bikari,  
Hegaztin eta xixari,  
Ouilasko eta axeri.

(Guziek esku-zartaka)- Hor hor Baxinabarre !

ELLANDE- Bertzela zu zira zu abilena !

GANIX- Axeri !

ELLANDE - Egia erran, lehertia bizi zira bai lanarekin beti  
borroka, herrestan !

GANIX - Xixari !

ELLANDE- halere segur nuzu sosa pulliki sartzen dela zure  
etxian. Egun oroz zapatain irabazia eta gero populu  
laborantxak eman hura.

HAURRIK EZ !

GAXUXA- Ene tokiko buruzagiak hasarre gorrian dire !

ANITAK- Ez, ez da hola ! Errebolbera hartu dute, eta, pamp !  
ate-zainaren aztaletara tiratu !

GAXUXAK- He !

ANITAK- Badazkit orai zure jukitriak !

GAXUXAK- Oh ! (Mutxikoetan hasten da).

ANITAK- Oh ! (Gaxuxaren oihu berak egiten ditu)

GAXUXAK- (beiratzen dio eta berritz hasten)- Oh !

ANITAK- Oh !

GAXUXAK- (iduri'ta gaitzitu)- Alabama, ah ! Colorado, oh!

ANITAK-(trufa batean)- Karabiñero, oh !

GAXUXAK- Zu zare nitaz burlatzen ?

ANITAK- Halako pitta bat !

GAXUXAK- Soberakina hori !

ANITAK- (oihu batean)- Oh !

JEANNEK- Zer da ?

ANITAK- (Gaxuxa erakutsiz)- Hau zer da ?

ANNAK- Miss Tickwet.

ANITAK- Itzul zaite ! Ez zaitut ikusi nahi.

JEANNEK- Zertako ?

ANITAK-Itsusia baita egiazki !

GAXUXAK- (Anitari)- Behin, bietan, badut egon-tokia, bai, ala ez ?

ANITAK- Ez ! Ganbara bat bakarrik izanen duzu, andre hunen etxean ; eta ez hazare hola kontent, tokiak hustuko dituzu zalukara !

GAXUXAK- Gaitzitu naiz/ezin gehiago !

JEANNEK- (Anitari)- Gaitzitu zaio.

ANITAK- (Gaxuxari)- Ez uste izan gero hoin errexki eskuratzen direla Frantsesak ! Zorotzat hartzen gaituzte eta zozokeriak eginarazten ; bainan behin guk begiak idekiz geroz!..

- GAXUXAK- Gaitzitua naiz ; bainan hala ere, barnetik lória bat badut !...
- ANITAK- (Burlatzen duela)- Hala erran bederen behar duzu !
- GAXUXAK- Loriatua naiz Frantsesek ez dutelakotz sekulan guk bezen ongi emanen kaxkarot-dantza ?
- ANITAK- Zer da hori, kaxkarot-dantza ?
- GRACIEK- Baxdnabarreko eta Xuberoko dantza bat, tanta...
- GAXUXAK- Dantzatzen ere balinbadute, ez sekulan guk bezen ongi. Kaxkarot-dantza hasten du).
- JEANNEK- (Anitari)- Badu espantu bere dantzarekin ! Neri etzait hain nekea. Kantaz eta dantzan abiatzen da).
- GRACIEK- Eian nik badakitan ?... (Dantzan hura ere).
- JEANNEK- (Annari)- Eta zuk, Anna ?
- ANMAK- (dantzan hasiko da hura ere)- Jainko maitea ! Zer da horren dantzatzea ?
- GAXUXAK- Andre Anita Huntto-ri ez zâio haizu !
- ANITAK- Ez baitut nik egundaino dantzako alderdirik izatu ! Bertzenaz!...
- GAXUXAK- Zure nahi hoberenarekin ere, ez zare sekulan hortarat helduko !
- ANITAK- Bixtan da ! Holako gauza ezin egina, zimino bat bezala hortxet saltoka hartzea (abiatzen da).
- GAXUXAK (esku zartaka)- Irabazi dut !
- ANITAK- Irabazi ! zer irabazi ?
- GAXUXAK- (mihitari asiki eginik)- Nik dut hobekienik dantzatzen!
- ANITAK- Eman dezagun baietz : bardin zaiku. Guk nahi eta behar duguna da, haur hainitz gehiago izan detzan Frantziak, gure lurren eta ontasunen zaintzeko eta gure etxean gu nausi egoteko !
- GAXUXAK- Amerikak ez baitu gauza hori onetsiko !
- ANITAK- Ez ote ? Ori, nahi nuke berrogoi urte gutiago banitu ! Bi dotzena hurrez emenda nezake Frantzia !

GAXUXAK- (oro irriz ikusirik)- Beha ! Onartzen dut ilabete batez andre Jeannen etxean egotea ; bainan zuek ere behar dautazue atsegin bat egin : behar dugu, guziek, elgarrekin eman kaxkarot-dantza!...

JEANNEK- (Anitari)- Uste duzu nardagarria dela !

ANITAK- (Jeanni)- Hori baizik ez badu behar bakearen emaiteko, goazen ! Aire ! (denak hasten dire dantzaz eta kantaz).

GAXUXAK- (jendeeri buruz)- Arizan dea dantzan ? Irabazi ote dut aldi huntan ene bazkaria ?... Biba familia handiak ! Eta, holaxet, ni egonen ilabete bat, goxo goxo, ene ahizparen etxean !!! Alabama, oh, Colorado!!!

GRACIEK- (jendeeri agur eginez)- Plum Pudding! (badoazi kaxkarot dantza emanez).

HERRIKO BOZAK

Boz'emaile balios bat

- PAKO - (sartuz, arras mozkorra, bi botoila, bat xuritik bertzea gorritik dauzka bi sakeletan... Kantuz ari da)-  
Xakurrak hau  
Gatuak hau, etc...
- (Oihuz)- Hep, etxe huntako jendeak... Gizon balios bat hemen duzuela, bere eginbidearen betetzerat etorria.
- AROT- Mugitzen ahal zare bozaren emaiterat... Laster tenorea izanen baita salaren hesteko.
- PAKO - Zer duk hik, arotz m-utur beltza, ni hola manatzeko, nahi diatanari emanen diat ene boza, eta ez hik manaturik.
- AROT- (samur)- Heu.
- GREG- (Ahauletik)- Ezti zaito... Horren bozaren beharretan gare pasatzeko. Behar ginuke baitezpada bildu.
- PAKO - (lurrean jartzen da eta bi botoiak bere aintzinean pausatzen ditu)- Nemen ene etxean nik, nor nahi bezenbat. Ene diruz egina baituk, etxe hau, bertze nor nahirenaz bezenbat. Eta, ni, hemen, nehorek ez nezala mana.
- M.P. - Arrazoina duzu, Pako... Eta, zuk bezala gerla egin duen gizona, barne huntan bere etxean da, bertze nehor baino gehiago.
- PAKO - Preseski... Zuri banda zikina zuek... Merian sartu baino lehen ere, hemen legea egingo duzuela? Hemen, mera bat ezagutzen diat. Eta, zuetarik nehork ez dik hemen nik baino gehiago dretxorik. Biba gorriak (gorritik edaten du).
- GREG - Ez zirea beldur, hola oihu eginez, ogia galduko duzula?
- PAKO - Ha. Zer nahi duk, hik ere, ene boza bildu? Eta, galtzen badiat ogia, hik zer afera duk? Ene ogiaren irabazteko on ahal nuk. Ez nuk, hire eyeran behin ere ogi eske ibili dakianaz.
- NEBA - Ha, nun ditiat paperak? Huna xuriena, eta huna gorriena. Hauk gauza pollitak? Hauk badutela gero errespetu... Ni, beti azken mementoan boza emaiterat jiten nuk... Hauk ezkutan ditudano, alabainan, norbait nuk... Zeren-eta, aitor-azue, denek zuen baitan mespresatzen nauzue... Bainan denak ixilik zagozte, hunako paper pollit hau nahi duzelakotz zuenganatu. Paper hau untzian

ezarri ordutik, deus ez diat balioko zuentzat. Deus gehiago zuen ostikoentzat ere ez nuk on izanen. hortakotz, ditiat paper hauk, ahal bezen luzaz eskuetan beiratzan... Hau, zuena zuriak... Eta, hau zuena, gorriak, sofri hor. Biba gorriak. (edaten du) Ahatik, ez uste izan, zuek zuriak, baitezpada gorrieri emango dudala ene boza. Berdin zurieri eman dezakeat... To, nahi baduzue, ariko gaituk tratuan : ean nork eskainiko dautan gehienik... Lehenik, zuek gorriak, mintza zaizte.

- M/P - Guk, Pako, gizon beharduna beti errespetatzen eta laguntzen dugu... Zure pentxioea biltzeko, baha-kizu zer hitzeman dautzuegun.
- PAKO - Ez zira gaizki mintzo... Eta, zuek zuriak zer dautazue hitzemaiten ?
- GREG- To, laguntzen bagituk pasatzen, ukanen duk herriko mutilgoa, Koserren orde.
- PAKO - Bai, hori gostuko lana nikek... Zuen tratua hobia diat besterena baino... Biba xuriak.
- KOSE - (kexu)- Zuri ustelak. Beharrik zuen ametsa ez duzue bururatuko.
- PAKO - Biba zuriak (zuritik edaten du). Zuek, gorriak jo-azue inkanta... Gehienik eskaintzen duenak izanen dik ene boza... Orai, bahakizue zurien berri... jo hor inkanta.
- MERA - (sartzen da, samur)- Mutiko trixtea !
- M.P. - Ez duzia bildu ?
- MERA - Ez, tira hala ihesi joan da oyan alderat... Igorri dazkot ondotik xekariak.
- M.P. - Laster behar luke jin, hesteko tenorea hurbil baita.
- PAKO - Biba zuriak... Nork du gehiago eskaintzen ?
- MERA - (kexu)- Zer ari zira hor lurrean ? Zer ditutzu moide horiek he ?
- PAKO - Galde-ozute ingurukoeri ene berri. Erranen dautzute nola inkanta ginuen, zu sartzean. Biba zuriak.
- MERA - Flazer baduzu, xutituko zira hortik, eta xutik egonen, toki hunen errespetuaz.
- PAKO - Jaun mera, manatuko duzu zure etxean, nahi baduzu, bainan ez hemen. Hau denen etxada.
- MERA - Zeer ?

- M.P. - (ahapetik merari) .- Otoi, eztiki har azu...  
Boza emaitetkoa baitu... (Pakori)- Ba, Pako,  
jaun mera ontsa mintzo da. Ederrago laitake,  
batere manatu gabe, xutitzen bazine.
- PAKO - Jaun merak, mana dezola lehenik bere etxeko  
zozoari... Harek obedituko duelarik, nik ere  
obedituko diot.
- MERA - (Mr Philippek ezin ezti du)- Jakinak herriko  
lehena ni naukala, eta errespetua zor dautakala.
- PAKO - Ba, zu herriko lehena, eta zure erne hura herriko  
azkena- (irriz)
- MERA - (errabian)- Errak berritz holakorik... Nahi  
duka beharri-ondoko bat ?
- PAKO - Biba zuriak... (irriz) holakorik nork ikusi du  
behin ere ?
- AROT - Errazu, Pako, erna zaite boza emaitetoz.
- PAKO - (beti irriz)- Ihizirat joan, eta armarik gabe  
etxerat. Eta, gainerat larru gorrian.
- AROT - (kexu)- Errazu, Pako, tenora duzula... Mugi ZAite  
hunarat bozkaterat.
- PAKO - (kexu)- Zuk ere zér duzu, ni hola manatzeko ?
- AROT - Zure onetan ari naiz, gizona, ez zaitela samur.
- PAKO - Nardagarri ere bazait azkenean, hola eskalari  
buru ezin eginez artzea.
- AROT - (kexu)- Nor da eskalea?... zu edo ni ?
- PAKO - Zu ba beti hala zira, bat ederra, ni ez naiz  
behin ere zuen etxean galdezka ibili. Eta zu  
hemen zabilta ene ondotik, boza eske gatu  
zaharra ñau-ka ibiltzen den bezala (orenak  
entzuten dira)
- M.P. - Xo, hep, xo, lau, bortz, sei, sei orenak. Ale,  
sala hest. Fini da orai bozkatzeko tenorea.
- AROT - Heu... (izigarri samur, Pakori lepotik lotuz)  
Nor duk eskailea, hemen, urde mozkor nahasi  
zikina.
- PAKO - Ai, ai, ai... Bozak fini, fini Pako!
- MERA - (Pakori ostikoka)- Kanporat mozkor tzar usaindua,  
kanporat hemendik. Herriko mutila ezar azu  
kanpoan gizon hau.
- PAKO - (Kanpotik)- Ez nian bertze beldurrik ! Ustel  
banda zikinak zuek.



HENRIKO BOZAK

- ANTON - Agur, jaun Mentaberry.
- MENTABERRY - Agur, Anton. Beraz heldu hiz, hi ere, sinaduraren amaite rat ?
- ANTON (Karroli) - Lehenik, baditut xehetasun zombait galdatzeko !
- MENTABERRY - Zer xehetasun ?
- ANTON - Mesfidatzeko zutaz errana zautaten... Denboraz makiunkoan ikasi zinueta-eta... Han eta hemen ni ere alatu niz... Nola daitake, eni bertzeari baino gehiago galdatzen duzula paperen egite sari ?
- MENTABERRY - Zer ? Hortan gituka ?... Atzeman dituk, hik ere, buru berotzaleak !
- ANTON - Egia da edo ez da egia ! Nor izanaren arauko sariak galdatzen dituzula ?
- MENTABERRY - Lehenik, orroit-adi huntaz : ihaur jin hiz ene ganat !... Nitau konfientzia gehiagoo ez izaitekotz, aski huen bertzetarat joaita, edo paperak ihaurek moldatzea.
- ANTON - Ba, hala egin behar nukela, konseilariak izan ditut.
- MENTABERRY - Bon... Mintza gaiten gizonki... Zuen paperen egitetik ene irabazia baduala, bixtan duk... Ez ahal duk nehor lanean urririk ari !
- ANTON - Hori konprenitzen dut.
- MENTABERRY - Bettzalde, paperak ez dituk berdin hemengo batentzat, eta, mugaz hunarat pasaturik, Ameriketarat joaiten den Nabartar batentzat... Harek xaupide gehiagoo badik...
- ANTON - Nahi dut. Bainan, zertako ez dugu soma bera pagatzen hemen berekoek ?
- MENTABERRY - Nahi duk jakin zerendako Pantxok eta Beñatek hik baino merkeagoo duten ene lana ? Huna zerendako !... Horiek bieK Konpania batentzat artzain joaiteko sinatu die... Nik, Konpania horri, horien izenak fornituu-eta, kitoo izan nuk... Konpaniak berak egin ditik horientzat, behar ziren desmarxa guziak. Hortakotz, horien lana guti gosta zaitak. Aldiz hi, ihaurren kondu joaiten hiz, hire osabari buruz... Hortakotz, hiretzat ibili behar izan diat, kontsulau, minixterioan eta bertze asko tokitan hor gaindi... Horra zertako hire paperak gehiagoo gostatzen diren, lagunena baino ! Bahiza orai ?

ANTON - Paper botigak !... Zenbeit gizontzen da, horien  
medioz... Ekartzu hunarat sina ditzadan.

MENTABERRY - Hala duk !... Bainan horiek gabe, pits  
ezin egin !... To, zina zak hemen... Eta  
horien biltzeko nor-nahi ez on... Bigarren  
sinadura emak hemen... Eta, biziak eraku-  
tsiko dauk eskuz-esku gizontzen bide hobeki  
egiten dela mutur-hauska baino... Eta,  
hirugarrena, hemen !...

HIRU ZIREN

- PANTXO - (Sartzen da, bere keza bizkarrian, ile bizarrak luze, errumes bezti... sartzen da... Behin, Benatek ez du ezagutzen ere).
- BENAT - (Azkenean ezaguturik)- Yes ! Hi ! Hi, ez hiza Pantxo ?
- PANTXO - Benat !
- BENAT - Agur, Pantxo gaizoa ! Yes, yes, yes ! Ez hintuan ezagutzen ere ! Hi, hi, Etxebesteke semea, hortaratia ?
- PANTXO - (burua behekituz) - Ba, ahalge nuk nihaur !
- BENAT - Bainan mutikoa, nolaz hiz holakatu ?
- PANTXO - Eritasunak... Mendikotz ez on... Hirian, nehon ezin arrapa ene heineko lanik ! Horra to !
- BENAT - Mutikoa, behar duk bertze zerbeitetarat entseatu Hori ez duk ofizio bat ! Oraino gazte hiz !
- PANTXO - Sobera behera eroria nuk, berritz jalitzeko !
- BENAT - Ez duk nehor hain behera erori ezin baitzukek jali... Jalitzeko nahia behar dik !
- PANTXO - Enia engoitik egina duk !
- BENAT - Gaizo Pantxo ! To, ni etxerat abian nuk...Etzi hartzen diat aviona ! Gabriela, ekatzu bi wizky ! Gaizo hi ! Eta, hire familian bahakie nola hizan ?
- PANTXO - Nekez ? Eta hik otoi ez zakela deus sala !
- BENAT - Bainan... Hola ez hintazke egon ! So egizak... Ni partitzen bainuk, ene arropetarik emanen dauzkiat, poxi bat bezti hadin... Dirua ere utziko deat... Bezti adi, eta bertze lan zerbeitetarat entsea adi !
- PANTXO - (buruarekin ez eginez)- Orai, berantegi duk !
- ANTON - (sartuz, harroki mintzo da Pantxori)- To, hor hiza, hi ere buhamia ! Ontsa jina hiz... (jartzen da eta zangoa luzatzen dio). Goizean zapetak ziratu gabe, jali bainuk, etxetik, to, zira-hazkidak orai ! Hola ikusiko dik Benatek ere, zoin abilki pratikatzen dukan hire ofizioa ! To, wizky turnada on bat irabaziko duk !

(Pantxo xutitzen da, bere lanari buruz).

BENAT - (Idorki)- Pantxo ago hire tokian !

ANTON - (Irri larri batekin)- Zer ! Utz-hak zonbait sosen irabazterat... Badik beharra !

BENAT (serioski)- Errak, Anton ! Bahakika zer ari izan ?  
Ez hiza ahalge holako lan baten galdatzeko adixkide eta herritar bati ?

ANTON (Kexu)- Zer kalte egiten zioiat ? Irabazia emaiten zioiat !

BENAT - Batere gizon bahaiz, gisa hortako irabaziak emanen dituk nahi dukeneri, bainan ez huni.

ANTON - Zer hiz hi ere ?... Herresten lauzkan abiatia ? Lehenagoko apostolua haiz ba orai ere !

BENAT - Nahi baduk... Hura bera nuk... Eta nizen bezalako nahiago diat, diruz hanpatu moltsa idor bat izan baino !

ANTON (xutitzen da, koskatua) - Eta, ez zakiat zueri zendako kasurik egiten dudan ere ! Nardatzen nuzue azkenean ! Ez zukek gehiago mintza ere ! Iduri eta zuen beharretan nizan ! (jalitzen dela).  
Eta hemendik, harat, bakea emanen duzi eni !

BENAT - Hail nahi baduk betikotz ! Ez hiz berdin gu arterat, guk galdeginik jina ! (bakarrik) Ze debru da holako ! Ez dela gure beharrea... Hori, zerbait gutarik nahi duelarik da, beraz, bakarrik, gure adixkide nahi ! Eta guk, hortarik zerbait behar badugu, orduan ez gitu ezagutzen ere ! Beretzat nahi luzken gisan, nahi ditugu, guk ere guretzat, adixkideak ! Egun txarretan ere, lehial egonen direnak, eta ez bakarrik aizea eskualde dugun egunetan. (ixilik ixtant bat).  
(Pantxori) hik, Pantxo, behar huke hire gogo hori poxi bat sendatu ! Hik dukan eritasuna, ez baituk gehienik gorputzean, bainan izpirituan.

PANTXO - (Trixteki)- Orai berantegi duk !

BENAT - Nolaz berantegi ! Jalitzeko nahikundea pitz hak... Oldar bat egizak.

PANTXO - Orai berantegi duk !

BENAT - To, Pantxo, pena egiten dautak ! Nahi diat sakrifizio bat egin hiretzat... Nahi duka enekin jin ? Pilaia pagatzen daiat !

PANTXO - (gogoetatua apur ba egonik)- Ez !

BENAT - Zendako ez ?

PANTXO (Trixteki)- Ez !

BENAT - To... Nik ez zakiat ba zer egin gehiago hire onetan.... Sari haugi Etxegaray baitarat... Elgarrekin afalduko diuk ! Emanen dauzkiat hitzemanak eta erabiliko ditiagu azken solasak... Sarri artio ! (jalitzen da).

PANTXO- Ba... Sarri artio !  
(Bakarrik... Wizky ondarra edaten du... Ixtant bat gogoetatua dago... Bat batean sepan nigarrez lotzen da).

## HISTORIA TRISTE BAT

(Salbador Garmendia)

ALTZIB- Duela amabost egun amets egin nuen, amets triste. Ukabillak bularraren kontra neduzkan, eta ortzak krisk-krask egiten zuten, sudurraren punta arrapatu nahirik bezela. Bihotza taka taka ari zitzaidan eta hodei mordo ikaragarria ikusi nuen itsaso gañetik etortzen. Antxetak pii-eta pii zebiltzan: itxas-haizeak arbolak dantzatu eta hostoak hondarrarekin nahasturik arkaitzen kontra botatzen zituen. Une berean, ezkerreko eskua piñamaren poltsikoan sartzen nuen, eta indarka ari nintzan zillarraren kolorea, brilloa zuen zerbait atera nahiez. (Ixillunea : esan nahi eta ezin esan. Dar dar dago Altzibar). Momentu honetan, txalupa batek, hondarra jo zuen, eta handik agure zahar bat eta emakume bi ateratzen ikusi nituen. Izuak hartu balitu bezela zebiltzan bi emakumeak. Poltsa aundi bat zekarren eskubiko eskuan agureak, eta, anka artean gordetzen zazpi ahalak egiten zituen; emakume zaharraren aurpegia ez naiz oroitzen zein itxuratan zegoen, bainan haizeak gonak jasotzen zizkion eta belaunak zikin zikin eginik ikusi nizkion. Gazteenak, begiak gorri gorri zeduzkan; neri begira egon zan, begiratu zorrotzez; neri begiratu, eta gero, agureak anka artean zeraman poltsara bihurtzen zituen begiak, eta gero segidan, emakume zaharraren balaunak tapatzen saiatzen zan. Binbitartean pii eta pii zebiltzan antxetak; itxasoa asarre zegoen. Urrutian, laiño tartean, hartza bezelako animalia bat ikusi nuen korrika, eta haren atzetik txakur txiki bat zaunka. Begi bat bestea baiño haundiago zedukan hartzak, ezpainak lodi eta sudurra zapal zapal. Bi emakumeak korrika zetozen neregana, bainan hartzaren marruak eta agurearen irriak golidiarazten zituzten eta igarturik bezela gelditzen ziran bizpahiru segundoz. Gero eta urbillago zeuden hartza eta txakurra... Aragiak dar dar neduzkan... hodei ikaragarriak odol koloreko ikusten nituen zeru illunean... eskua patrikan sartzen nuen eta zillarraren brillua zuen zerbait ateratzen indarka hasten nintzan. Ezin nuen... bainan... hartza, neskatxaren anka pausoen aztarrenak segitzen ikusi nuenean... besterik ezin da... halako batean...

ITO... EDO EZKONDU

Botika-atzea, erri txiki batean. Atzean, ikusleen aurrez-  
aurre, botikarako atea. Apalak, ontziak, sendagaiak eta abar.  
Botikarako atea, kurtiña edo errezela izango du, barrukoak  
izkutu geldi ditezen. Alde batean, beste atea. Au, botikario-  
aren etxe-barrura daramana. Exerleku, alki ta beste orlakoak.  
Agiri-agirian, mai bat. Iru lagun jokoan ari dira kartetan.)

LENBIZIKO AGERRALDIA

- MARK- (Kartak bilduaz)- Joko au nerea da. Neurri neurri atera  
zait.
- IZAIN- (Berrogoi ta amar urtekoa. Bizar motxa ta ugariduna.  
Erriko kobratzaillea da)- Ez azkarregi poztu. Don  
Markox.
- SAT- (Ogei ta amabost urte ingurukoak. Botikarioa da, ta  
burrus zuria jantzita agertuko da). Ikusi dezagun,  
ikus! !
- MARK- Oso oker ezpanago, bi tantoz irabazi det, (kontatzen):  
Esan da izan ! Irurogei ta zazpi ! Argi ta garbi !
- SAT- Orrela da, bai. Bi tanto goitik, ain zuzen ere.
- MARK- (Karta **biak** erakutsiaz)- Ikusten al-dezu ? Txanka  
ta zalduna elkartuta... Bizitzan bear dan bezela :  
gutxienez, bi elkarrekin.
- SAT- Ezti, ezti, Don Markox ! Urrutitik ikusten det nora  
dijoan.
- MARK- Ainbat obeto, orduan. Enaiz esaten aspertuko : ema-  
kumea, bearrezkoa du gizonak.
- SAT- Ortan, alperrik dabil nerekin.
- MARK- Mandoa baiño burugogorragoa zera ; ta barka esana.
- SAT- Esan, esan nai duana ; baiña ni, euskaldun ona bezela,  
bakar-zalea naiz ; ta bakarrik bizi ta il nai det.
- MARK- Ze bakar ta ze makar, gero ! Orrek izen bakarra du :  
kazkaillua izatea.
- SAT- Nik iraunez erakusten det. Ta gainera, idi uztargabea,  
bapo dabil zelaian.

- MARK- Ori ongi dago idiarentzat ; baina kristauarentzat, ezta urrik emanik ere ! (Izaiña'ri) : zer derizkiozu, Izaina adiskide ?
- IZAIN- Nik zer esango diot, ba, apaiz jauna ?
- MARK- Zerbait esazu, beintzat... Ia mutilzar purrukatu au noñabait bide zuzenean sartzen degun.
- IZAIN- Nik naikoa erakutsi det nere jokabidearekin. Ba-daki... iru aldiz ezkondua naizela.
- SAT- Ta ez gure apaiz jauna bezela... Kanpaiarenak egiten...
- MARK- Kanpaiarenak ?
- SAT- Bai, ba ; besteoi barrurako deia egin , eta bera elizatik kanpora gelditu.
- MARK- Etzazula barrabaskeririk esan.
- SAT- Kontu, ba, ezkontza kontu ori aitatu ! Utzi bezait nere ontan pakean.
- MARK- Zure kazkar ortan argi pixkat sortu nai nuke, ordea. (Izaiña'ri): Esaizu benetan, Izaiña; ardi galdu onek uste duan bezin txarra al-da ezkontza ?
- SAT- Leku ederrera dijoa iñor zirikatzeke. Izaiña onek izen duan zoritxar etengabeekin ; iru aldiz alargundutako gizona, alajaña !
- IZAIN- (Pipertuta)- Ni asmo onez ezkondu izan naiz beti. Gauzak okertu ba-zaizkit, nik zer egitea nai zenduten ?
- MARK- Etzaitte berriketei begira bizi. Mingaiña dantzatzen ari diran zenbaitek, obe egingo zuketen zure bidea artu ba-lute.
- SAT- Jaungoikoagatik, Don Markox ! Ezpeza orrelako egin-kizunik aitatu.
- MARK- Etzazula nere burutapenik biurritu. Ondo dakizu zer esan nai dedan. Izaiña maxeatzen ari diran askotxok, obe egingo luke ezkontza-bidez bizia zuzentzea. Ta zuri Don Satur, eztizut pakean utziko nere zabarkerian.
- SAT- Lena berriz ! Nerekin alperrik ari da, ba. Ni ez naiz beñere ezkonduko, ta kito !
- MARK- Ondo dago, Gizona. Ni zure onagatik ari naiz. Nere ardiak elkartzea, neri dagokidan lana da.
- SAT- Eskerrik asko ; baiña ezpedi lan ortan nekatu. Beti lelo bat aditzen ! Ni ezkongai gelditzea, auzoaren arria balitz. Ezin naiz etxetik atera, aspergarrizko kanta ori entzuteke... (imintzioka): Aizazu, Sagarmin jauna, orrela bakarrik gaizki zaude... Zure etxean, emakume baten bearra dago... Emakumeak okerrenak ! Arnasarik artzen utziko ote-didate!



IZAIN- Ba... emakumeak setatzen ba-dira, lentxeago edo gero-  
txoago, saretan nastuko zaituzte.

SAT- Ezta ezergatik ere ! Aditzen al-dezu ? Ezta iñola ere !

IZAIN- Ori, askotxo esatea da, orreatik.

SAT- Artara beartzen ba-naute, ezkongai eta martiti ilko naiz  
(Geldi-unea)... Añde guzietatik jardun bearra !... Ta  
lenak txiki uzteko, doña Zurrumbillo ere, autsak arrotzen  
asia degu. Etzaio, ba, kasketan jarri, ni Mediku zarraren  
alaba, Loretxo'rekin uz-tartzea ?

MARK- Doña Zurrumbillo ere bai, beraz ?

SAT- Bai, jauna. Gantxegi albaiteru zanaren alargun saltsa-  
mendi ori ber-bera !

MARK- Lenago Txokolategi'ren alargun eta aurrez Seguro  
arakifaren alargun izana ?

SAT- Orixe, ain zuzen ere !

MARK- Ba... orduan... (Oso benetan eta bere eskuak Satur'en  
sorbaldetan jarriaz) : Zurrumbillo alarguna ortan sartu  
ba-da, ezkonduko zera, Satur. Bai orixe !

SAT- San Pedro'ren abarkak ! Ezpeza orrelakorik esan !

MARK- Zurrumbillo alargunak ezta beifere uts egin. Orduz  
adierazi zaidazu, Satur, bedeinkazioak eta esku-eraku-  
tsiak prest izan ditzadan.

SAT- Enau Zurrumbillo orrek izutzen. Enaiz burrukan geldituko  
azkenerarte. Il edo bizi jokatu det.

MARK- Oraingo ontan, galeran zoaz. Galeran, galeran... neretzat  
irabazian.

SAT- Ez uste orren samurra nagoenik. (Exertzen da). Nik ere,  
nere neurriak artuta dauzkat. Botiká'ko morroiak, oso  
agindu zorrotzak ditu ontan. Gaiñera... emen lagun-artean  
esateko... Berok dira, uste gabeen, nere laguntzaillerik  
onenak.

MARK- Ni laguntzaille ?

SAT- Ez al-da konturatzen ? Gauza garbi dago, ba, Beori, don  
Markox, gizon ona, gizon zuzena, gizon zoriontsua da...  
ta ori guzia, ezkondu gabe. Ori da biderik garbiena,  
ezkontza zokoratzeke. Nere mutiltzartzaroa, ondo baiño  
obeto gordea, dago, beraz.

MARK- Etzagu txorakeririk ezan. Zure egitekoa, gauzak pres-  
tatzen astea da. Obe izango dezu.

SAT- Ezta beifere ! Ni enetxoak, mutilzar guritua, nere  
aitaren aizera.

MARKOX eta IZAINA- E?... Nola?...

SAT- Uztazue itzegiten, lagunok. Nere aitak esan oi-zuen  
aizera.

MARK- Zure aita, senar ona izan zan. Ederki asko dakit. Zure  
ama santa arekin, oso zoriontsua.

SAT- Orretxegatik, ba. Nere aita, santa batekin ezkondu ta,  
ala ere mutilzar gelditu bear nukeala uste izan ba-zuan,  
nola entzungor egin bere esanari ?

MARK- (Buruari eragiñaz)- Zure kazkoa gai ontan oker dabil.

SAT- Ongi ausnartua daukat, uste ezpadu ere. Etorri dedilla  
Zurrunbillo alarguna ! Emen arkituko nau lubakietan,  
txispaz armaturik.  
(Txistu luzea entzungo da)- Ixo, pixka batean!

IZAINA- Zer gertatzen da ?

SAT- Etsaia atetan ! Ixillik, mesedez.

MARK- Ta txistu ori ?

SAT- Erne-belarra det ori. Nere neurriak artuta didudala,  
esan diet lentxeago. Txistu bat jotzen didatenean :  
"Etsaia aurrean!", esan nai du. Bi txistuk : "Arrixkua!"  
adierazten dute : ta iruk, gaiñean dedala eraso. Ujentu,  
nere morroia, ondo erakutsia det ortan.

MARK- (Sat~~ur~~'i begira)- Benetan larritzen asia nazu. Zure gan-  
bara ori... (Sat~~ur~~'en burua erakutsiaz) : bere lekuan  
ote-dezun ere...

SAT- Nere askatasunaren etsaiengandik, nolabait gorde bearrean  
nago. Ezta besterik.

ITURIAN

BOSGARREN AGERRALDIA

- KATALIN- (berriz sula betetzera dator)- Bai al gaude ba, Joxepa.
- JOXEPA- Bai, txaroa beteta oraintxe ñijoan etxera.
- KATALIN- Ez dakizu zeñen bertso politak erosi dituten !
- JOXEPA- Nun ?
- KATALIN- Ortxe, Zerkausiko ixkinan. Ezetz ~~asmatu~~ zeñenak diran ?
- JOXEPA- Galtzaundirenak ?
- KATALIN- Ez.
- JOXEPA- Bilintx'enak ?
- KATALIN- Ez, ta.
- JOXEPA- Zeñenak bada ?
- KATALIN- Zelaietako Jeolimo mutil zarari, Txotxaneko Bitori bere andregaiak jariak.
- JOXEPA- Asaretu al dira ?
- KATALIN- Bai, ez altzekizun ?
- JOXEPA- Nik ez. Ta, oren azkar bialdu al du ?
- KATALIN- Bai, ta, ikusiko dituzu bertso xelebriak orain. Naiko par egingo dezu.

Eri ontako guztik jakindu dezaten bertso beri batzuek asi naiz gaur jartzen nolako nobiyua agertu zitzaizen eta zeregatikan orain deten uzten.

Jeolimo izena, Zelai"tan da bizi neregana etori zitzaidan lenbizi itz legun ta politak eginaz zan asi atzenerako nik det aspertuta utzi.

Orlako gizon aulak dirade etortzen Amerikan goseak egondu ondoren gezura eta saltxa sorturik an da emen ibiltzen dira neska guztik engañatzen.

KATALIN- Bigote zorotza du, aundia tripotxa  
ezpañetan puruba, korbatan oratza  
relojuko katetik zintzilikan ontza  
uria izateko paltsua du otsa.

KATALIN- Oien antzekoakin ezkondukoakin  
izango ditu maiz ta ugari malkoak  
ni bezelako neskatx biotz onekuak  
senara artzerako atera kontuak.

KATALIN- Beriz etortzen bazait neri orlakorik  
buruntzia sartuko diot tripetatik  
ez detalako nai nik orlako gizonik  
nere begi aurean beñere jartzerik.

JOXEPA- Jeolimo ere etzaio ixilik geldituko.

KATALIN- Nik ala uste. Arazoiakin da, bereala erantzun naiko  
dio.

JOXEPA- Erantzungo dion bezela. Zer bada, nai duen guztia  
esaten neska txaldan ori utzi ? Ez nik beintzat, ez  
nioke utziko.

KATALIN- Atrebitu bertso oik jartzea !

JOXEPA- Eta kaletan saltzen ustea !

KATALIN- Bera xanta bat balitz bezela !

JOXEPA- Eltze bat egun da sekulan ausi ez balu bezela.

KATALIN- Alperagoa da gañera neskatx ori !

JOXEPA- Enasa, utzia ta nerratxa.

KATALIN- Moztutzeko alperkeriz ere, beatzetako azkazalak  
kana bat luze ibiltzen ditu.

JOXEPA- Eta gañera tximinia baño beltzagoak.

KATALIN- Arpegia beriz krakax beteta eukitzen du.

JOXEPA- Soñekoak koipez zikinduta...

KATALIN- Lirdinga dariotela...

JOXEPA- Usai zikiñezko kiratsa boteaz.

KATALIN- Eta, zeñek eta orek bertsoak jari bear Jeolimo  
bezelako mutil txukun jator bati ! Puff!

JOXEPA- Ez ditugu aditzeko guztik oraindik entzun ez !

KATALIN- Besterentzat bai, izaten du orek zer esan naikoa.

JOXEPA- Ta bitartean bera baño saltzera aundigorik iñor ez.

KATALIN- Esango nuke...

JOXEPA- Aizu, ekaizkiatzu bertso oiek etxean despazio irakurtzeko.

KATALIN- Tori... bañan, ez galdu ez.

JOXEPA- Jesus ! ez nuke nai (Katalin'ek Joxepa'ri ematen dizkion bertsoak, onek patrikaran gordetzen ditu).

KATALIN- Ta, orain gogoratzen naizela, bai-altzekizun zuk kale barengo doña Gumertsinda gaxo zegoala ? (orain sartzen da poliki-poliki ateko langatik doña Gumertsinda ta zerbaiten eskutuan jari ta ituriko emakume oien saltxa guztik entzuten egoten da).

JOXEPA- Bai, pulmonia ote duan esan dute.

KATALIN- Orenbesteraño ?

JOXEPA- Elizakoak ere eman ote dizkioten entzun det.

KATALIN- Doña Gumertsinda gajoa ! Sekulan gaxotasun bat ez diogu ezagutu ta, orain zärtzarorako gaitz edera sortu zaio.

JOXEPA- Bai !

KATALIN- Elizakoak eman dizkiotenerako ez da biziro ondo-ondo egongo.

JOXEPA- Au mundua ! Zerbait bagerala uste degu ta ezer ez gera bitartean.

KATALIN- Zer egingo da bə da, onezkero ez dago orekin kontrik.

JOXEPA- Nun da gure Jainkoak milagroen bat egiten ez duan !

KATALIN- Ori.

JOXEPA- Ez du beintzat doña Gumertsinda'k itzegiteko bide aundirik mundu ontan eman.

KATALIN- Aizu, orengatik ere kontutxo batzuek zabaldu ziran garaia izan zan.

JOXEPA- Guztiok izaten degu zerbait mundu ontan, ta izaten ez badegu ere ez da beñere paltatzen nor edo nor, diranak eta ez diranak esateko ta sortzeko.

KATALIN- Alaxen da bai ; maxiatzaleak obetogo dira baztaretan.

JOXEPA- Esango nuke !

KATALIN- Nik ez dakit batzu-batzuek beren lanak noiz egiten dituzten. Gure lanak beintzat geok egiten ez baditugu, egiteko gelditzen dira.

JOXEPA- Alaxen da.

KATALIN- Guk baño abildade aundiagoak izaten dituzte munbait.

JOXEPA- Mingañean bai.

KATALIN- Doña Gumertsinda gajoa ! Ezin aztu zait !

JOXEPA- Ez da neri ere...

KATALIN- Aizu ta, orain gogoratzen naizela, gaur goizean argiezkilakin batean, il-kanpaia jo dutela iruditu zait !

JOXEPA- Doña Gumertsinda'ren agoni-kanpana ote zan ba ?

KATALIN- Alaxen izango zan.

JOXEPA- Aita gure bat bere animaren alde erezatu dezagun.

(biak "Aita Gurea" erezatzen ari dirala sartzen da Pantxikiñaxi).

JAUNAREN BIDE TAN

(Augustin ZUBIKARAI)

V- JUDAS

EGILEAK- IRAGARLE, ELEAZAR, NOEMI, ABEL, JONATHAS, ISAAK,  
JUDAS, ZEKEN, JEREMIAS.

IRUDIA- Urkamendian, Arbola banakak egaletah, Judas arbola  
batetik zintzilik dago, urkatuta.

IRAGARLE- (Kantuz Doñua : "Iruñako ferietan")

Judas'entzat okerreña Jesus'en maitetasunā,  
beretzako mintsuena bere adiskidetasuna,  
Origaitik berē lotsan arbolatik urkatu zan.

Ibilli zan bide onetan Jesus'ekin batean,  
urre garrez ase eziñik jauzi zan diru-erpetan  
Dana galdu azkenian bere zoritxarrean.

MULLITXOAK- (Oyala zabaltzean, bidez bide datozela, Judas  
ikusten dabe ta ikaraz beterik:)

BATEK- (Kahtuž)-

Ene ! Ene ! Zein da emen arbolatik zintzilik ?  
Ete da ba gaizkillia edo buruz galdua ?  
bata dala nai bestia errukarri gaixua.

BATEK- Ezagutzen ? Konturatzen ? Judas diru zalea!  
Gure begiak ezin sinistu ikusten daben kaltea!  
zeiñek ete dautsa argitu rozitxarren atea ?

GUZTIAK- Oi arlote, lxxariote, diru zale zekena.  
Diru txanponen egarriaz, ase eziñez bizitzan.  
Zetarako zure diruak ? Zetarako dan danak ?

ELEAZAR- (ikaraz) - Judas ! Judas...!

ABEL- Lapurren batek ez ete dau il berau ?

NOEMI- Jesus'eri deituko dautsagu ?

ELEAZAR- Jesus'ek artuko daben penia!

JONATHAS- Len be aspaldion negarrez ibiltzen da daki arek.

ABEL- Bardaraka nago.

JONATHAS- Orain be bildurretan memelo ori ?

NOEMI- Zeren bildur ?

ABEL- (Jonathas'eri)- Barriro be ? Neu ez ipiñi gero...!

ELEAZAR- Ni neu be ba...

NOEMI- Jesus'ek osatu egin lei. Ildakoak biztuten ez daki ba?

JONATHAS- Orrek miñen bat ez ete dau euki ?

ABEL- Bai, zereko miña.

ELEAZAR- Zegaitik ez ?

NOEMI- Lapurren batek il egingo eban, dirua ostutearren edo.

ISAAK- berori be beti diru billa ebillan-ta... Zekenago zan zekenago...

NOEMI- billatu egin biar genduke Jesus.

JONATHAS- Nun billatu ?

ISAAK- Eskuak lotuta eruan eben atzo. Neuk ikusi neban.

ELEAZAR- Nora ? Zeñek ?

ABEL- Ez egizu guzurrik asmau.

ISAAK- Noiz atrapa nauzu guzurretan ori esateko ?

ABEL- Noiz ? Kontäten asiko ba nitz..

ISAAK- Tira ixilik, sakatzak ataratia nai ez ba dozu. Guzurtia ni ? Ni ?

ABEL- Gu danok be biribillak botaten asi ezkerero...

JONATHAS- Danok ? Niregaitik etzara jardungo kontixu, ezta ?

ABEL- Sekula guzurrik eztozu esan, ala ?

JONATHAS- (Asarre, Abel'eri zapartadaka asteko eran). Errepatxi!  
Niri be bai ?

NOEMI- (Abel'eri sakadaka)- Ala, ospa emendik Jesus'en billa.  
Bixkor gero. Bakarrik gañera.

ABEL- Ni ? Ni ?

NOEMI- Arin be arin jun be, gure laguna izaten jarraitu gura ba dozu.

ABEL- (Urten aurretik)- Ikusiko dozue gure txabola onduan bakarrik atrapatzen zaituedanian. Amak be etzaitue salbako ba ! (juaten da).

ELEAZAR- Nun ikusi zendun ba Jesus ?



ISAAK- Getsemaniko ortuan. Lotuta eruan eben.

ELEAZAR- Apostoluak nun ziran ba ?

ISAAK- Nik eztakit. Igeska ikusi nituzan.

NOEMI- Judas be bai ?

ISAAK- Judas bertan geratu zan.

ELEAZAR- Zetan ? Bakarrik ?

ISAAK- Nik eztakit, Jesus neuk ikusi neban miñez beterik eta entzun be bai berari, orreri esaten : Judas ! Musu (laztan) bategaz salduko nuzu ?

NOEMI- Ia gero orrek Jesus'en Aitaren zigorra artu daben.

ELEAZAR- Zegaitik zigorra ?

JONATHAS- (Kanpora begira)- Or dator Abel, arin be arin.

NOEMI- Arnasa be galdu egingo dau orrek, beti itsumustuan, dabillen bildurraz.

ABEL- (kezkatik sartzen da). Diabrua ikusi dot, diabrua, diabrua!

ELEAZAR- Nungo diabrua ? Orixe da ikara ta bildurra.

ABEL- Diabrua bai ! Dantzan ikusi dot, zaratatsu bere bosteko jardumean ta barre algaraka.

ISAAK- Zeure keixiagaz bildurtuta ?

JONATHAS- Zorotasunak darabizuz zuk, zoro aiziak.

ABEL- Bere bostian didarrez ebillan : Judas ! Judas ! Atso txin txin, gaur zintzil.

ISAAK- Diabruak urkatu dau orrela ba da.

NOEMI- Zer dauka ze ikusi diabruak ?

ELEAZAR- Euki ez ?

ABEL- (kanpora begira)- Ara ! Ara ! Begiratu ! Ikusi... ! (Bizi bizi igeska). Neu enau aatrapauko beintzat !

GUZTIAK- (igeska)- Neu bez ...! Neu bez...!

(Mutiltxo guztiak iges egin ondoren, egaletan ikusmin ezagutiko dira. ZEKEN-LEMONISUA sartzen da dantzari. Judas'en inguruan burlaz eta isekaz dantzaldi bat egingo dau, bere poza erakutsiaz. Dantzaldia, amaitueran JEREMIAS agertuko da. Zuri zuri jantzita dator, iragarle zar-zar antzera, Bera ikustean, bere didarra entzutean, ZEKEN makur makur eginda ezkutauko da).

JEREMIAS- (zaratatsu ta andikiro)- Kanpora ! kanporaaa !!  
(Erdi aldera begira)

Ni naiz Jaungoikuaren abotsa.

Mundua mundu danetik egia erakusten nabillen Jaungoiko altsuaren didarra.

Eguzkiaren azpian egiten danaren barri zigur zigur dakit Moises'en ondoren nabil Jaungoiko altsuaren maitasuna erakutsi ta gizonen okerrak zuzendu guraz.

Gorrotez beterik dira erriak. Ikusi eziñez garrazturik begiak.

Asarre zitalez ustelduta biotzak.

Entzun gizonak eta andrak. Entzun batez be oraindik garbi garbi bizi zarien umetxoak !

Ez alargunik mindu ! Ez umezurtzik baztertu ! Ez erbestekorik esetsi. Ez beartsu ta ezeukirik erruki barik itxi.

Itok ez begi bere biotzean anaien aurkako gorrotorik biztu,

Ez aberastasunik geyegi maitatu. Eta batez be, aberastasuren garrez itsututa, ez Jaungoikorik aztu ta saldu.

Gizonak eta andrak ! Jaungoikoaren Semia saldua izan da, bafa bere odola irakiten agertuko da munduz mundu.

Bere saltzallea, urkatuta, ustelduta ezagutuko da, ikasi dagizuen urrearen argitasun eta beroaz barik, Jaungoikuaren argitasunpean ibilli, indartu eta biziten !

(Azkenengo zati oneik esaten diarduan artian, MUTILTXOAK bere ondora urreratzen igarriko dira ikusmin eta jakinmidez.)

## KAUTER-en PHEDIKIA

Inomini Papa et Fili  
Txipittua, handittua, haintikua, hunaintikua,  
Eta erdikua, heben, nausittua.  
Xütiz, Müttiz et non-zifatiz.  
Hediote, Mediote, ene librü zaharrek zer diote ?  
Abentian gaia lüze,  
Gaiherdi artio best hilabete,  
Hantik eta argila lau,  
Ene kautere mithil horiek ohin khakinen diela gaur !

Heben bi mithilak Pupu eta Phitxu, bertzaren bethatxatzeko phartez  
Kartakan ari dira eta phedikü artetik nausiak, Kabanak, "mus"  
entzuten dü eta oihü egiten erranez "ariko zideia lanin, ützirik  
kartaka"...

Jente hunak plazer badüzie behatü,  
Nñhi dereiziet khuntatü  
Ene bizitze llabürrian zer zereitan agitü.  
Igaran egün batez phartitü niz Maulerik,  
Orthez-erik, Bordele-erik, Libourne-erik, Orléans-erik  
Pariserat.  
Han aihalatü nintzan Idiartian,  
Lo egin Etxebarnian,  
Eta askaltü Bidabian.  
Hantik ana-phartitü nintzan bertz zahar  
bat bizkarrian,  
Chalon-erik, Lyon-erik,  
Marseille-erik, Tolosarik, Tarbes-erik,  
Oloruerik, Gurs-erik, Nabarrenkosera.  
Han Juan zenaren seme hil batekin  
egin nian afera.  
Hura tzarpakari eta ni bertz-saltzale.

Kabanak mithiler bürüz "Abantxü düzieia bertz hori bethatxatü ?"

Alkharrekin untsa bazkaltü eta phartitü bedera alde.  
Hura Mithikilerat  
Eta ni Sohutan gainti jin nintzan Arrokgarat.  
Han jo nin bortha,  
Iabarnegaiian agertü zereitan etxekandere Pierra.  
Nik hari eskentü bertza,  
Harek arrapostia etziala monera,  
Bena bardin arranjatü günian afera.  
Gosetürik bermletzan ekharri zereitan jatera,  
Saltsatako gathükia, Errakitako Tziminokia,  
~~Sukks~~ Eta hasi günian apaidia.  
Bena ordian heltü zen nausi Maria,  
Hartürik makhila gorria,  
Erraiten dereit har dezadan kanporako bidia,  
Eta nik haitatü, zalhe-zalhia borthako bidia  
Ützirik ene bertza, apaidia eta etxekandera.

Pitxuk saihetsetik " Behin phü zedi !"

Hartü nin Galharragako bidia -Mendikotako Etxarrak)  
Han sarthü nintzan Otelian, gomendatu apaidia.  
Etxekanderiak ekharri zereitan saltza bat goxua !  
Onddo, Leherando, Erregia, Pallomet  
Ho-phixa eta Artho-irin  
Etxekanderiari galthatü nereion khuntia.  
Ber demboran heltü ziren Urrütxango artzaiñ  
bidekariak.

Han ziren :

-Gibelegiet, Azkanobiet, Zezenegiet, Athatset, Phikhotzet  
-Xilo, Xilope, Xilogaiñ,  
-Tillars, Ballars, Arragallars,  
-Konkor, Zanbot, Argandot,  
-Tellamun, Zerramun  
-Eyhartzet, Erreka, Elhar, Turta, Tzapiula eta ni.  
Ororen artin edan günian pintua,  
Eta phartitü bedera alde.  
Ni Maidalena zeraren gainti jin niz zien artiala.  
Heben ikhusiz holako jente saldua,  
Bai eta zien so egiteko faizua  
Arrunt erraiten dereit goguak  
Abantalla bazünie Maxkadetan aritzekua,  
Hamalau-atarik hamahirou-ek  
Maita zinigtela Kauter gorako ofiziua.  
Bena Manexek erraiten beitie  
Lanetik da lanetik gure gerua,  
Orai behar dugu bethatxatü bertzaren xilua !

Kabanak : "Ürkentu düziea lana ?"

Mithilek : "Bai-bai"

Kabanak : "Emozie beraz jaunari", eta Mithilek jaunari erakusten  
die bertza, bena orano xilo beita, hunek gibel igortzen dütu.  
Lana arra-hunkitzen die eta bigenen erakuts-aldian, Pitxuk,  
gibeletik, Txapelarekin bertzaren miluk thapatzen dütü. Jaunak  
Lana hun hontürik sos xehe urthukitzen dereie, eta kautere Mithilek  
laster biltzen dütie, nausiak gibeletik azotutzen dütialarik.

KLOBIS trajedi

Klotilde eřegearen emaztegeiak, Jesus-i ta Andra Maria'ri egindako otoitz sentikora.

Adoratzen zutut, Jauna,  
zeluko Eřegia,  
Zeliaren, luřaren eta  
gaiza ororen Kreatzalia.

Zu adoratzen zutielarik  
hitza dit abantzatu,  
bena jauna, bestela,  
otoi, Zuk libra nezazu !

Guk zer behar-dugun,  
Jauna, zuk ba-dakizu,  
Zure grazia handiaz,  
otoi, gida gitzazu.

O Birjina Maria saintia !  
Balia zakitzat aretuosa,  
Jesus seme jaunaren  
kretzian, otoi, ontsa.

Jauna, otoi, erakats dazu  
zer egin behar dudan ;  
Klobis sinetsi-ala  
refusatu behar dudan.

Gidatia izan nadin  
hutsik batere egin gabe,  
ene Salbatzale justua  
Jesus ofentsatu gabe !

KOROPILLO

ANTONIOK- Jenkoak daizula aratsalde on, etxek'andrea.

MARIAK- Ixilago bada !

ANTONIOK- Zer da ?

MARIAK- Jenkoaren izenean!

ANTONIOK- Non da ?

MARIAK- Non izanen da ! Maluruski ohean.

ANTONIOK- Nor ?

MARIAK- (Antionioren galdeari ihardetsi gabe)- O ! non den galdeka oraino ! Jenkoak eta Ama Birjinak ikusten ahal dute horrek jasaiten duen martirioa !... Hamabiru aste huntan, higitu gabe, hor ohean ? Ez zaitzu ?

ANTONIOK- Zer derasazu ?

MARIAK- Barka, ez naiz menturatzen gora mintzatzerat. Lokuluxkan dago, en'ustez ; trankatua ere da alabainan misaulea.

ANTONIOK- Bainan, nor ?

MARIAK- Koropillo !

ANTONIOK- Koropillo ? Axtian izana da, niri sei metra oialen bila.

MARIAK- Nor ? Hori ?

ANTONIOK- Ez du oren erdirik oraino, izana dela !

MARIAK- Hobe luke ori.

ANTONIOK- Paga nezazu. Denbora galtzen dut berdin hemen, mahasinan bearra. Are dirua hunat, ni geiago atxikarazi gabe.

MARIAK- Ez da gero arralleriarik hemen.

ANTONIOK- Nere dirua hunat.

MARIAK- Emazu bada, Jenkoaz, ixilago.

ANTONIOK- Nik, nere dirua galdetzen dut. Ala zorotu zare?

MARIAK- Errazu, jauna, trufaz ari zare ?

ANTONIOK- Trufaz ?

MARIAK- Uste duzu, denak, zu bezala, jostetako trenpuan direla ?

ANTONIOK- Josteta ikusiko duzue segurik, ez badauztatuzue zorrak pagatzen.

MARIAK- Noren zorrez mintzo zare ?

ANTONIOK- Horren galdetzeko kopeta baituzu ?

MARIAK- Eta zuk, hola oiuka aritzekoa ?

ANTONIOK- Orai, joko'aparte, etxek'andrea, ekarraraz zazu Koropillo.

MARIAK- Gizon konjuratua, holakorik bear duzula erran !

ANTONIOK- Ez naiz Koropilloren etxean ?

MARIAK- Ba. Bainan ari zaite apalago, berriz erran-ta ere.

ANTONIOK- Apalago, apalago ! Zer ! Belaunikatzerainokoan apal, zorren galdez ? Ederra diagu.

MARIAK- Erro guziak ez dagozi errotegian !

ANTONIOK- Apalago ari nadin nahi baduzu, adi'azu arrozoina : Koropillok sei metra oial hartu dauzkit.

MARIAK- Zer erraiten duzu, gizona ? Koropillok oiala hartu ! Urkatu bear litake, xutik gateko gezurrak hola sakatu nahi dituen... Hamalau aste huntan halako plantan da giza-gaixoa, non ez baitu ohetik zangorik atera. Inposiblez, espres ari zare ; zoazkit hemendik eta eman niri bakea.

ANTONIOK- Neri, apal mintzatzeko, zinion, eta zuoni oiuka ari zare.

MARIAK- Jendea onetik aterarazterat etorriã zare hunat dudarik gabe.

ANTONIOK- Beazu, bota nere dirua hunat, eta ganen naiz.

MARIAK- Apalago mintzatu gogo duzu ala ez ?

ANTONIOK- Zuk, ba, atzarraraziko duzu, ni baino doble gorago ari baitzare... Eka'zu dirua.

MARIAK- Bainan,zer zare, edana ala burutik gana ?

ANTONIOK- Hori duzu ateraldia ?

MARIAK- Ixilago !

KOROPILLOK- (Ohetik oiuka)- Maria ! Usain ona. Lumatxak pixka bat altxa doztatzu. A ! ura edaterat !... Zango zolak arraska daztatzu.

ANTONIOK- Koropillo aditzen dut hor mintzo !

MARIAK- Ba ! (Gibeleko erridaua baztertzen du, eta atea idekitzen ; eta Koropillo ohean agertzen da ; Antonio atetik bea gelditzen da).

KOROPILLOK- Maria, zato hunat. Nork errana zautzun berinak idekitzeko ? Estal nezazu eta igor jende beltz horiek! Xirmi-Xarma ! Xirmi-xarma ! Haiza zatzu, haiza zatzu.

MARIAK- (ohe ondozat joanik)- Zer duzu ? Ezin egon ?

KOROPILLOK- Bea fraile horri airetan... Atxemazu!... Gatua, gatua ! Horri ! Nola doan goiti!

MARIAK- (Sorbaldeatarik hartzen duela)- Jenkoaz, geldirik zaude, hoinbertze batailatu gabe!

KOROPILLOK- mihiku horiek pozoindatu dautet barne guzia beren erremedio debruekin.

MARIAK- (Antoniori)- Zato, nahi baduzu ikusi.

ANTONIOK- Noiz eritu da hola ? Feriatarik gibelatekoan ?

MARIAK- Feriatarik ?

ANTONIOK- Segurki han baitzen. (Ohe ondozat ganik, koropillori)- Nik zorretan saldu oial-pezaren saria bear dutala, Koropillo !

KOROPILLOK- (Iduri eta ez ezagutzen)- A ! xuhurtegu jaun mihikua zaitut, zu ? Ori, bi pikor egin ditut, harria baino gogorragoak, beltz-beltzak eta pilota bezen borobilak. Hartu bearko dut oraino aiuta ?

ANTONIOK- Nik dakita ? Eta zer zait niri ? Dirua bear dut nik.

KOROPILLOK- Kanika beltxaran heieri, zer erraiten diozute, jaun mihikua ? Pilurak edo ? Bena den, halakorik ez zadazula geiago harraraz, jenkoak ! Hartu guziak goiti botarazten dauzkitet.

ANTONIOK- Ez ordea nere oiala ?

MARIAK- Zoazi, otoi, hemendik, burua hausten diozu.

ANTONIOK- Gan ? Ez. Oial saria ez dutano, ez naiz hemendik aldaratuko.

KOROPILLOK- Gurmaraz bazinetza ; jaun mihikua, nere zerak... eta hek ; hain dire gogorrek, non tormentak ikusten baititut libratzean.

ANTONIOK- Libra lehenik nere zorrak.

MARIAK- Gizona hola ataka ditakela, sinesteak ere lanak ditu. Badu jasaitekorik aski : hamabortz aste erraten dautzut, ohean dela !  
(Sukalderat heldu dire Antonio eta bigak).



ANTONIOK- Ez zait beraz hori izan egun goizean?... Eta...  
ez dautala horrek ereman oiala ?

MARIAK- Otoi, otoi, bilzkitzu zure oial, oail-sari eta nahi  
ditutzun gainerateko guziak ; bainan utz gaitzatzu  
gu bakean.

ANTONIOK- Badere, salbu zu eta xerria berrikitan hila duzue  
naski ? Ta zer duzue suan ?

MARIAK- Hauxe duk galdea !

ANTONIOK- Barka, zeren arrunt uste nuen...

MARIAK- Uste ta muste ! zazpi-sukalde, zu ! Zer zabilta,  
onzalekerian, non zer aurki ? Eriak ez du urdeki  
bearrik.

ANTONIOK- Ez da gauz'onik hemen.

MARIAK- Ta, zuk gauz'onak maite ?

ANTONIOK- Banoa, banoa. (Ateko alderat abiatzen da ; Maria  
ganbaran sartzen eta erridaua edo atea hesten).  
Arrunt nahasi naik emazte sorjes horrek , eta, hemen  
egonez, buru ondarra galaraziko zautak. Alta ez  
duk haratik ez hunatik, nik sei metra oial nonbeit  
bear ditiat. Bereala ikusiko diagu. (Aterat buruz  
gaki da, eta berritz gelditzen) Gizon horrek hartu  
zautak nere oial-peza ; eta ez dik orai. Nola zukek  
hori?... Eta bera Attaeneko hauskoetan!... Non ez  
duen eriarena egiten azeri zaharrak!... Horrek dik  
nere oiala : hartu zautak ; segur nauk ; oraino,  
besapean ememan dik-eta, ta ez dik bada oialik.  
Ametsetan ari ote nauk?... Ez ditiat nik oialak  
hola emaiten ; ez atzarririk ez lotarik ; ez, sekulan  
santan ez diat holakorik egin ez eginen ; ez eta nere  
adixkide hoberenari ere. Horrek nere sei bergako  
oial-peza hala izan dik bizkitartean... Bainan ez dik  
oialik ; bazakiat ez duela... Ez diat buruziarik  
eginen naski !... Hor dik nere oiala, ez dik,  
Ez diat deus konprenitzen. (Ateratzen da).

MOISAREN PASTORALA

MOISA

- Elas ! Ene Jinkua !  
hanitx zutut remestiatzen,  
zere zure haur bezala  
mundian naizun ikusten.

Zure haur nuzu, bai,  
hobeki ikus nezazu :  
moien harez zelian  
nahi zutut adoratu.

Zure grazia saintia  
nitara egoitz'ezazu,  
eta ene zahartasuna,  
otoi, ikus ezazu.

Amorekatik ahal zitzaidan  
gero han adora  
eta merexi duzun bezala  
beti remestia.

Mundian kitatzeko  
jin zitadazut denbora,  
ikusiren ene zahartasuna  
untsa handi dela.

Hanitz dangeraturik, jauna,  
naizu konserbatu,  
hala nula Faraon"en eskutik  
bei-nunduzun libratu.

Maniak hartu nituzun  
Tabro'arke montaiñian,  
Hari batetan zuk emanik  
letera gorietan.

Izkiribatu zitizut  
libru handian  
eta zure maniak  
hedatu mundian.

Deitu behar naizu, Jauna,  
otoi, Zuregana,  
amorekatik goza dezadan  
zure tronua.

GABRIEL

- Moisa abilua,  
ore kasernala,  
eta ore jentia  
zer ari den jakitera.

Jainkuaren manuz nuk  
jiten hiregana,  
eta haren ordren  
hiri emaitera.

Bqlan ari duk  
perediku egiten  
eta Jinkuaren kontra  
manu emaiten.

Benga-erazi behar duk  
ore jentia oro  
eta madinadita guziak  
odoletan ezar-erazi oro.

Hamabi mila gizon  
prestatu behar duk  
Eta fine Jeneral  
egin behar duk.

Moisa abilua,  
orai buhala  
eta Jaunaren ordriak etxekuta,  
nik eran bezala.

MOISA -

O, zelietañ zirena,  
egidazut miserikordia,  
eta nitan etxerka  
zure grazia saintia.

Adoratzen zutut, Jesu,  
zelietañ zirena,  
ene kreatoria eta  
buruzagi gehiena.

Esperantxa dit hebe  
konserbaturen naizula  
eta zure haur bezala  
nitztaz oharturen ziela.

Ba-nuazu kantika baten  
orai Zuri kantatzera,  
Ainguriak, zirauzteie,  
otoi, ene laguntzera.

(Gabriel Aingerua sartzen da)

(Kantuz) Zure suiaz era nezazu,  
zeliko Jainko handia,  
eta beti lagunt nezazu,  
Izpiritu dibinoa.

(Aingenua) Zelutik gu jaitsi gutuzu,  
Moisa, zure laguntzera,  
zeluko Aitak igoririk  
zure faboritzera.

MOISA - Emaidazut, aren grazia  
etsaien defendatzeko  
bait eta ere betiere  
tentazionen goitzeko.

Lauda eta dugun adora  
zeluko Jainko handia,  
zeren harek oro bei-zutian  
Kreiatu mundiala.

MUGA

ARANTIPI- Etsa...  
BATIXTA- Etsa...

ARANTIPI- Errazu, Batixta, orai ere falta dire bazterretan nik ez dakit zenbat zikiro, behor ; eta hazienda hekien buruz buru urrats alferrik ez dezagun egin, behar diguzu aitor itzul-inguru guztiak. Naparroko Diputazioneak erri atziendak lerroz-lerro agertzeko agindua eman baitigu.

BATIXTA- Dakienak daki...

ERREMUNDE- Jaun prefetak gauza bera manu digu : kadastroen egitea. Eta ez dugu xehetasun garbirik ateratzen ahal zuek abereak batetik bertzera baimenik gabe dabilkitzuelarik.

BATIXTA- Hala da, jaunak. Aurten belar guttisko baita eta azienda berez-ber larre berrien bila dabil. Zer Nauzae, muga guzian ez bait diteke ezarri itxiturik.

ARANTIPI- Ba guk azienda ori bahitzeko agindua dugu. Onez onean erraten dizut, bertzenaz...

BATIXTA- Ez naiz bakarrik izanean. Nasaiki gire erri-bietan mugalariak... muga ohoiak nai ba duzue. Agian erriko handi-mandi eta buruzagietarik. Orobarne, Eha ba den dehor ez duanik egin kontrabandarik.

ARANTIPI- Ezta ori auzia. Zoritzarrik danori gerta ez dakigun ordea, aginduak bete ditzagun.

ERREMUNDE- Mugazain, eta karabineroak urbil dire gainera ta atxeman zinukete. Hobe duzu ikus ez zaitzaten.

BATIXTA- Lehenago ikus baititut heik ni baiño. Damurik ez naiz gazte. Haatik aski zalu naiz oraino eta eskualdun gaskoinen eskuetan ez erortzeko. Naiz egun sei oreneko bidean ibilia ba naiz.

ARANTIPI- Beha, Batixta. Ez gatozkitzu zelatari bezala, adiskidetik adiskiderat montzatzerat baizik. Asarretzeke zer nulak antola ditezkelata uste baitugu. Zuri buruz erran-merranak ba dabilta. Guk ez jakin iduri egiten dugu. Ez gire aietaz jabetzen.

BATIXTA- Ez nik ere ez ditut sinesten entzundako guziak. Ez ditut ba ordaintzen petxa, zerga eta kontribuzione oro ? Bada mandoa lehertzeko aña zama. Hortik landa zer zaie axola mihi-zorrotxai nundik norat hikiltzen naizena ? Nerea da nekea ez bere.

ERREMUNDE- Eta zureak irabazi osoak. Nola nai den errien kastu eta kargak gainditzen doaz beti. Gubernamenduak dirua geroz eta geiago galdetzen dauku eta nunbait sortu behar.

ARANTIPI- Eta egunetik egunerat gure errietanazienda guttiagotzen, paperean bederen...

ERREMUNDE- Mugan galtzen baitira.

BATIXTA- Jakina artaldeak ez ohi dira paperez bazkatzen eta bai larra jenez mendian. Bada anitz mutil iri handietako bulegotan. Etor daitezela eremu-eremu azienda buruen kondatzea. Ikus nahi nituke mendi pattar gora lehertzen, gure bizkar jaten bizi baitira. Ez da aski muga paperetan ematea.

ERREMUNDE- Gure Biltzar zaharra balitz nagusi lehen bezala, ez litake hori gertatzen ahal, bainan hura izan zanez geroz ez dezakegu haren zai astia gal.

BATIXTA- Ez, ez ; ni Michel-en begira nago, or konpon gainerakoak. Enetako puska baliosak bait dakarzuki ez nituzke mendi bazterrean utzi nahi ; Mugan geldi behar dut finkatua hekiek eskura ditudeño. Luzeitzirik nago.

ARANTIPI- Hala delarik eta lasago egön zaitezen bakarrik uzten zaitugu. Gu Arretxaldeko leporat berma baarrean gira lekuko izaterat ; eta lehenbailehen gatea obe, Itzultakoan ukanen ahal dugu gogo bazenbat asti elgarrekin mintzatzeko.

ERREMUNDE- Ba goazi ba orduan.

ARANTIPI- (Batixtari)- Bazkaltzen emen izainen zira naski ?

BATIXTA- Ez dakit ba. Etxekandreak eskeintzen ba dit bazkari eta mugazainak ez ba daute gibelarazten ez nuke bertze ostaturik gutizi.

ERREMUNDE- Aldi batetik zuretako ama jaki izainen da eta... bertzeak ez zaitue izitzen loa eta gosea kentzeraino.

ARANTIPI- Huntan malurik gerta ez dakion, bataezpada, on da gu bizkarrerat igotea. Mugazain eta karabineroak andik aizatzen ahal ditugu. Oren baten buruan egina dugu itzulia -gan-jina- eta bazkal ondoan jarraitzen ahal dugu solasa aspertu ala.

BATIXTA- Ederki, ni bizkitartean etxe gibelako iratze multzuan etziterat noa. Ehia lokartzen nauen. Loa gozo baita logale denean : eta jan edana ez denean ase...

ERREMUNDE- Ah zu. Piztien arabera da ori.

BATIXTA- Ba, eiki. Zikiroak maite dute eguerdi aitzineko lo kuluxka eta noiz nai bazka lodia, (doalarik nagiak ateriaz). Noan oatzerat berant gabe, agur Jaunak.

ARANTIPI- Sarri artio.

ERREMUNDE- Gizonaren laxoa.

ARANTIPI- Ba goazi. (Batixta eskuta den lekurat burua itzuliaz eta beha. Alimale gaitza. Larre gizona. Are geiago: muga-gizona. Ez aute errez atzemaiten karrika aurrek.

PETAN MIHIKU

MAIDER-ek - (Aita-alabean erdian jarririk). Huna eri bat ikusteak atsegin egiten baitaut. Gizon gazte batek, bera osasunekoa izanez geroz, ez du zeren utz.

PETAN-ek - Hau duzu eria ?

NAGUSIAK- Bai. Nere haur bakarra, eta, jada alargun bainaiz...

PETAN-ek - Ez ditutzu malur gūziak, beraz.

NAGUSIAK- ... Hau hiltzerat heldu balitzaut, galtze lazarria litake neretzat, bakar-bakarrik geldi banindake.

PETAN-ek - Ez duzu ez galduko. Egin dezala, ori, holakorik ! Ez du, alabainan hil bear mihikuaren manua gabe.

PETAN-ek - Jartzeko zerbait, are. (mutilek kadirak ekartzen dituzte erdirat)

PETAN-ek - Hobe = mihikuak eriari irri eginarazten dionean, ditaken seinalerik hoberena duzu. (Maideri-i) Ta !zer gertatzen zautzu ? Zer senditzen duzu ?

MAIDER-ek- (Eskua aldira ahorat, bururat, kokotserat emanez) Han, hin, hon, han,

Petan-ek - zer derasazu, haurra ?

LAUGARREN MINTZALDIA

NAGUSIA, PETAN, PIARRES, MAIDER, LEON.

- MAIDER-ek - (aitzina, berdin) Han, hen, hin, hon han.
- PETAN-ek - He ?...
- MAIDER-ek - han, hin, hon, hen...
- PETAN-ek - Zer demuntre duzu mintzaire hori ? Han, hor eta hemen ? Ez dautzut deusik konprenitzen !
- NAGUSIA-k - Hori da, jaun mihikua horren gaitza. Betbetan mutu gelditu da, eta, orai arte, ez dugu jakiten ahal izan, nola. Horren gatik gibelatu bear izan du bere ezkont eguna.
- PETAN-ek - Ta, zertako ?
- NAGUSIA-k - Senar-geiak, gauzak ontsa egin nahiz... sendatu arte, igurikatu gogo baitu.
- PETAN-ek - Nor ere baita, zer zoroa ditakena ! Andrea, mutua ez nahi ? Nerea hola balitz, ez nuke ori, nik sendatu nahiko, saritan ere !
- NAGUSIA-k - Dena den, zure ahalak egizkitzu, jauna ; ez dautzugu bertzerik galdatzen.
- PETAN-ek - Bo ! Ez odol gastorik egin... Errazu, ta... gaitz horrek akitzen du ?
- NAGUSIA-k - Ba, Jauna
- PETAN-ek - Hobe... Hainitz sofritzen du ?
- NAGUSIAK - Izigarriki...
- PETAN-ek - Ederki egina da... Joqiten da dakizun toki hartarat ?
- PETAN-ek - Ba, ba...
- PETAN-ek - Jori ?
- NAGUSIAK - Ez dakit zer erran nahi duzun.
- PETAN-ek - Bear bezalako gauza ?
- NAGUSIA-k - Ez dut fitsik konprenitzen.
- PETAN-ek - Berdin munta du... (Maideri) Luza zazu besoa. (Foltsua hartzen dio ; ixtan bat ixilik egonik, karkulan bezala nagusiari ) Foltsu hunek... irakusterat emaiten du... zure alaba... mutua dela.
- NAGUSIA-k - Ta, ba, hori du, alabainan bere gaitza. Lehen kolpetik hatxeman duzu, jaun mihikua.



- PETAN-ek - Guk, mihiku handiek, lehenik gauzak ezagutzen badakigu. Bertze mihiku petrikilo txar horiek izanen zuten lanik aski. Eta erranen zautzueten : "hau du, hura du" ; nik aldiz, tankean hatzeman dut. Eta erranen dautzut (xutitzen da eta nagusiaren ganat badoa) Pena egin bear badautzut ere... zure alaba gaixoa... mutua dela !
- NAGUSIA-k - Ba, bainan , erran nahi bazinaut, nondik heldu zaion hori ?
- PENTAN-ek - Ez da gaitz... mintzoa galdua duelakotz.
- NAGUSIA-k - Segurki... Eta mintzoa, nolaz galdua duen ?
- PETAN-ek - Gure gizon jakintsun guziek erranen dautzute : mihia... ez zaiolakotz... bear bezala ibilki.
- NAGUSIA-k - Ba... Oraino, mihiko traba hori, zerk emaiten ote dio ?
- PETAN-ek - Aristoteles gizon aipatuak hortaz dio... ba, erraiten ditu, ba, harek biziki egia ederrak.
- NAGUSIA-k - Baitake.
- PETAN-ek - A ! Gizon kasko gaitzekoa zen hura !
- NAGUSIA-k - Nor ere baita.
- PETAN-ek - Gaitza, gizona, gaitza ; gizon bat (eskuz keinua eginez) ni baino oraino haundiagoa... Beraz... guretzat joanez, beretik ari gaiten. Daukat, mihiko traba hori... aire batzutarik heldu zaiola ; guk sabantek, umoreak deitzen ditugu, erran nahi baita ... ba... umoreak ! Eta, gaitza sortzen den aldetik ateratzen diren delako aireak heldu dire... erraiteko maneran... zerepat... eta... Latina, ikasia duzu ?
- NAGUSIA-k - Ez.
- PETAN-ek - (Bra uxitutik). A ? Ez duzu latina konprenitzen?
- NAGUSIA-k - Ez eta hitzik ere.
- PETAN-ek - (Lorietan, aho-betean) Cabricias Arci Thurán, Catalamus, Singulariter, Nominavito, Haec, Est . Musa, erran nahi baita : musa. Bonus, Bona, Bonum edo banao. Deus, deus, Sanctus, Est-ne oratio, La- tinas, latinez. Etian : bai. Quare, zertako. Quia Kuia ez bada kuia txoa. Substantivo edo bustana. Et adjectivun concordat, konkorra. In generi, numerus, numeroa. Et casus, eta kasu...
- NAGUSIA-k - A ! Oxala, ikasi banu hola latina !

- PIARRES-ek - Zer eskola dukena !
- LEON-ek - Ba, ederki mintzo duk ; nik ez diat segurik debru pitsik konprenitzen.
- PETAN-ek - Beraz, aipatu aireak, ezkerretik, han baita gibela... eskuinerat, biotzaren alderdirat... joaiten?... bularrak, latinez "armiarma" deitzen ditugunak... hauk buru-fuineri, grekaz "nahas-mihiz" lotuak baitire... buru-fuinetarik biotzerako zainari, ebreoz "cubile" erraiten diogunari esker... bidean aurkitzen ditu delako aireak. Lepa-uztalaren barnean direnak : eta... delako umoreak... konprenitu bear duzu ontsa arrazoinamendua... eta beraz, delako umoreak kaltekorrak baitire... Kasu'mazu huni...
- NAGUSIA-k- Bai, bai.
- PETAN-ek - Kaltekorrak baitire... zeraren gatik, eta... ba, zaude erne.
- NAGUSIA-k - Dena bearri nagozu.
- PETAN-ek - Zeraren gatik, eta... bearri, ziloetan, sortzen diren aire minkor batzuen gatik... huna zer gertatzen den... Ozadun Duz, erran nahi baita : azak onduz... Nequeis, Naquer, edo aise, Potarium, Quipsa milus. Horra zergatik den zure alaba mutua.
- PIARRES-ek- Gizonaren kasko gaitza eta aho ederra !
- LEON-ek - Eta mihi azpiko zaina ontsa pikatua duela !
- NAGUSIA-k - Hau arrazainkaria ! Ez ditake segur, nehor hobeki ari... Gauza batek estonatu nau haatik, jaun mihikua. Gibelaren... eta... biotzaren lekuak. Iduritzen zaut, ez ditutzula xuxen emaiten ; biotza dela ezkerreko aldean... gibela aldiz eskuinekoan.
- PETAN-ek - Ba, lehen hala ziren ; bainan guk, denak aldaratu ditugu, lekuz, eta, orai, mihikuntzan arras bertze alderat jokatzan gare.
- NAGUSIA-k - A ! Hori ez bainakien. Barka nere inorantzia.
- PETAN-ek - Ez da makurrik, ez duzu, alabainan gu bezain argitua izaiterik.
- NAGUSIA-k - Hori hala da, bainan jaun mihikua, zer egin bear dela iduritzen zautzu ?
- PETAN-ek - Niri iduritzen zautana, egin bear dela.

NAGUSIA-k - Ba... Ta ?

PETAN-ek - Nik, daukat **bherat** joan bear duela berriz eta, erremediotzat harrarazi bear zaiola etxe ogi zerra bat ederra arnoan bustirik.

NAGUSIA-k - Zertako hori, jaun mihikua ?

PETAN-ek - Senda dadin !

NAGUSIA-k - Bainan, nolaz, ogi eta arnoa...

PETAN-ek - Huna : arnoak eta ogiak, elgarrekin nahastekatua direlarik, indar berezi bat baitute, mintzarazteko... Ez zare ohartu, perruketeri ere ez dela bertzerik emaiten, eta, hura janez, ikasten dutela mintzatzen ?

NAGUSIA-k - Hala da. A ! hau gizon gaitza !... Fite, arnoa horri, eta ogi zerra bat ederra.  
(eria ganberarat laguntzen dute).

PETAN-ek - Aratsaldean berriz agertuko naiz.

\*\*\*\*\*

RAMUNTXO

Ramuntxo, Itxua, Arroxo ta Florentino.  
Sagardua eranaz, sagardotegiko aukietan mai  
aurrean exeriak.

(Ezkuta-zapia igotzerakoan eleizako ezkillak entzuten da. Meza nagusia orduantxe amaitu da, ta gizon eta emakumeak eleizatik irtetzen dira. Gerorako Udala irtetzen da, ta Txistulariak "Alkate soñua" joaz aurretik dituela, alde egiten dute. Azkenik, ikastetxe bateko nekak beren lekumearekin eleizatik irten eta atze aldetik joaten dira. Ezkillak ixiltzen da).

- ITXUA - Ai zak, i, Arroxo, gaur sagardoari bildurra diokala dirudik.
- ARROXKO- Sagardoari ? Ez gaur eta ez beñere. Baña, Ramuntxo-ren joan bear orrekin gogabetua niok.
- FLORENTINO- I ta guztiak. Nork esan emendik ordu batera gurekin izango ez dala !
- ARROXKO- Bigarko pelota jokuan, nere lagun ikusiko ez dedala.
- ITXUA- Eta gabian, gurekin Prantzi aldera joango ez dala.
- FLORENTINO- Makiña bat aldiz itzaz gogoratu bear diagu.
- RAMUNTXO- Bai ni ere zuetzaz.
- ITXUA- Gure etxean bazekiat, katuak ere negar egin bear duela.
- RAMUNTXO- Gai orretzaz naikoa itzegin diagu, ta eran zagan orain bartko zoriona jaitzeko.
- (Guztiak eraten dute)
- ITXUA- (Ramuntxori)- Ta, aizak i, Ramuntxo, joatekoan, ire naitasun oyeke nola uzten dituk ? Maritxo-k zer asmo dik ?
- RAMUNTXO- Zer asmo nai dek izatea ? Ni soldaruzkan naizen bitartean itxoin eta gero, amak uzten badio, nerekin ezkondu.
- ARROXKO- Nere amak naiko ez duela, jakiña ziok, Jendeen berriketak burua berotu ziotek, eta ez aiz bere gogokoa. Bañan ez dek orrengatik larritu bear. Nere arrebak maite au, ni ere ire alde izango nak, eta zer edo zer egingo diagu.

ITXUA - Mutillak ! Bazenekite onen amari belarri ertzera egi batzuek esateko zer gogoia daukadan. Eztarri zuloan sartuak zeukazkiat, eta botatzen ez baditut ito bear diat. Bañan botako dizkiat, eta entzungo zizkiak. Ramuntxo'ri dion gogo txarra, gaizki arkitzen diat.

ARROXKO- Nere ama orrelakoa, dek, eta orrelakoa izango dek. Bestela... non arkitu nere arrebarentzat Ramuntxo bezelako senargairik ?

ITXUA- Ezta Petrikillo'ri berri bat aginduta ere. Ta gañera berak alkarganako maitasunaz irrikitzen ez zioztik ? Utzi bada zorionekoak izan ditezen! Ara ! Txinixtu zazute. Ire ama arkitzen badet, entzun biar zizkiak bereak eta bi.

FLORENTINO- Lengoan ere, ori bera esan ukan.

ITXUA- Lengoan eta beti. Eta ori, nik ikusten dedan une berean, nere begien aurrean jartzen dan bezin laster.

(Dolorex, Justina ta Ana Mari'rekin, elizako ateetan azaltzen da)

FLORENTINO- Ara bera, eleizako atean. Eldu akiyok. Orañ dek garaya.

ITXUA- Ala dek ; baña, Justina ta Ana Mari'rekin zetorrek, eta nik berari bakarrik esan nai ziozkat... eta bakarrik arrapatuko diat... eta, nai badu, ta nai ez badu, entzun biarko zizkiak.

FLORENTINO- Ni, bi lagunakin izketan geldituko nak, eta andre Dolorex, bakarrik utziko diat. Nai al dek ?

ITXUA- Ez, gizona, ori ez ! Ori, gauza bere onetik ateratzea izango ukek. Eta nik, bere kaus, ondo datorrenean nai diat.

ARROXKO- (Ramuntxori)- Ramuntxo : ez adi larritu, ni, beti, ire alde izango nak.

RAMUNTXO - Bazekiat.

ITXUA- Esan nai ta ezin esan onek, barren guziea kixkaltzen jarri ziak. Apaltzen ote naizen, ekatzute sagardo pixka bat.

(Guztiak eraten dute)

SAN TOMAS'EKO FERIYA

bigarren Irudia

TXINTXARRI eta MIGEL MARTIN

(Migel Martiñ gelditzen da txintxarrien mai gañeko gauzari begira).

TXINTXARRI- Aiskiria ! Badakit zuk zer bear dezun, begiyan igarritzen dizut.

MIGEL MARTIN- Zer bada ?

TXINTXARRI- Zintzarri abetako bat! (Erakutsiyaz)

MIGEL MARTIN- Zein naizela uste dezu ala ?

TXINTXARRI- Naiz izan Krisallueneko mayorazgoa zuretzat diñakok badirala iduritzen zait. Emango dizki-zut merke merke !

MIGEL MARTIN- Uste dezu zuk orlako traste kiñ ibiltzen gerala gu ?

TXINTXARRI- Ez, sonbrallu kopaltakiñ ibilliñ zerate !

MIGEL MARTIN- Baita ere, entierrotarra joateakoan.

TXINTXARRI- Goazen, goazen ; zer esan nai dan konprenitu egin bear da. Gizon artean, gizonak bezela itz egin bear degu.

MIGEL MARTIN- Ez dezu itxura aundirik. Zu ere donostiarra izango zera ?

(Batimta joaten da txorixo tokira, erosten du bat, eta janaz alde egiten du. Bere orde zuzten du mutill bat).

TXINTXARRI- Bai zera ! Nongoa izango naiz, Alegri'koa ! Txintxarri-errikoa !

MIGEL MARTIN- Ni ere ingurukoa naiz bada.

TXINTXARRI- Egiya ; nik noizbait ikusi zaitut. Zu, Alzo'koa edo, Billafranka'koa edo, Baazaingoa edo Urrestill'goa edo...

MIGEL MARTIN- Bai, edo Espainikoa. Golpean asmatu dezu.

TXINTXARRI- Nongoa zera bada ?

MIGEL MARTIN- Alzaga'koa, gizona.

TXINTXARRI- A, bai !

MIGEL MARTIN- Migel Joxe errementarien semea.

TXINTXARRI- Ez da erremienta txarra ! Ezagutzen det bai !  
Nik Alzagan jende asko ezagutzen det, Joxe  
Anthonio Mari Jibilin-trankenekoa ta, Pello  
Joxepe Mozkorreondelenekoa ta, Praxku  
Anthonio Marixikiñenekoa ta....

MIGEL MARTIN- Arrentxen alabakiñ ezkontzen naiz bada ni.

TXINTXARRI- Garbi esateko, Marixikiñenakin ?

MIGEL MARTIN- Ezkondu egin bear genduela ta, orren osaba  
Ameriketatik etorriak emango ziola diru  
mordoxkaen bat eta, berak ere... ez sira gaizki  
diranak eta... txerri utsetan ere...

TXINTXARRI- A ! Marixikiñenian txerri kontuan ando  
izan oi dira beti.

MIGEL MARTIN- Bai, eta kanpantorre bat zure erriyentzat.

TXINTXARRI- Zintzarriyak jartzeko ? Ez lirake agertuko,  
ordia, goazen, goazen, tratuba egingo degu.  
Badakit nik feri billa etorri zerala eta  
konponduko gera.

MIGEL MARTIN- Ez zaude zu konponikaldera txarra.

TXINTXARRI- Itz egingo degu txurruptat eranaz. Kaxamiro  
(Mutill koxkor bati eta uzten du bere kontu  
maya) kontu egiñ ni etorri bitartean ; kantoiko  
tabernan izango gera.

SEMETXIA

ZORTZIGAREN AGERRALDIA

BENAT- (herabeki)- Aita zena ! Ezagutzen zaituzten batek erran daut etzinakitela zuzenki, hil edo bizi den oraño zuen aita.

ERREMUN- Ah ! ah ! Erran dauzkitzu ere, ezagun horrek, gure aitaren balentriak ?

BENAT- Denak erran dauzkit. Bortzetarik, bia gelditu zaitzela bakarrik.

ERREMUN- Eta Majalen hamahirur urtetan izan dela aitak egini-kako familiaren sustengua.

BENAT- Erran daut, gizon berak, sobera gazterik ezkondu zela zuen aita. Hogoi eta hiru urtetan... Haurxko !...

ERREMUN- Aitzaki ederra !

BENAT- Zuk ez dezakezu preza aitzaki hori. Ez dut erran nahi zuen aitak urrikalmendurik merezi duela, eta segur naiz denborak erakutsi diola bere hobenaren handitasuna; bañan, ez ahantz nik errana : Ezkontza gaztegiari asko behar eztenik darraizkola.

ERREMUN- (irriz!)- Ez naiz hortan !...

ERREMUN - (kantatzen du)-

Andere Gerla xoilki dut  
Orai emaztegaia.  
Erriz-irriñak ez dio  
Aingerutzen bisaia.  
Xuri orde, gorriz dakar  
Ezteietako zaia...  
Lo luze batentzát dagi  
Gure ohe nasaia.

BENAT-

Umezurtzaren ariman  
Goizik dabil negua.  
Hartarik etorri zautzu  
Daukazun sosegua.  
Balaki eman dautzunak  
Zertan duzun gogua,  
Ikus luke aintzinetik  
Zor zaion gaztigua.



ERREMUN - (nahasixko)-

Orai, hobe dugu gatez libro izan,  
Hurbil dugun batek bi hitzez ez detzan  
Bihotzak zartaraz eta zafiak bihur...  
Majalenek eman detzola bi ahur  
Hogoi liberako mutil gazte huni  
Eta utz gu biak, Beñat, zu eta ni,  
Nigarren azpian urtarazi gabe...  
Ez naiz, nere ustez, kezu ez herabe,  
Bañan kalte zauzkit erasi luziak...  
(xutiturik) Sor beitez gudari urriki heziak...

BENAT(izitua)-

Erremun ! Erremun ! Etzaitela bero  
Sukarrak ixtant bat baizik ezdu : Gero  
Gorputza dagoku kasik ahitua.  
Emazu nerekin hazkarren kantua !

.....

ERREMUN-

Gizon azkarrak,  
Gazte zaharrak,  
Sunsitzen ditu indarren karrak.

BENAT-

Aitorren ume,  
Ez daizte zume  
Axalez egin bizkar hezurak...

BIEK-

Buruak gogor,  
Nahiak idor,  
Non hert detzake basen beldurrak!...

ERREMUN-

Oneste hotza,  
Erase motza,  
Eskuan burdin eta izotza.

BENAT-

Lagunik aski  
Izanez gaski,  
Urruntzen dite jende arrotza...

BIEK-

segur hortako  
ziñez dohako  
hautatuari heien bihotza !

Majalen sartu da bigarren kopia kantatzen zutelarik eta izitua bezala dago.

SEPPEREN GERTATUA

(Hurrengo pertsuan sartzen da Ganix Kantariek elgarri keinu bat egiten dute han dela, bainan gelditu gabe...)

Sepperen gertatzeko  
Oi krima trixtea,  
Sortuz geroz zor dugu  
Guziek hiltzea ;  
Bainan ez zaku aizu  
odol ixurtzea  
Horrek ekartzen baitu  
Denentzat kaltea.

(Pertsu hau eman-eta, agertzen da Tartalet...)

DENEK- To, tartalet... Haugi hunarat... Jar-adi hemen. Zer-bitzaria, baso bat gehiago. Ale, kanta zak gurekin... (tartaletekin emaiten dute hamargarren pertsua, Ganixeri buruz bezala).

Nor nahi izan dadien  
Horren egilea,  
Galdu du sekulakoz  
Barneko bakea ;  
Ez dauka pagaturik  
Egin duen kaltea,  
Irrizkatzen ere du  
Lepoa moztea.

TART.- Pertsu hori ontsa emanak duk gero... Jaun Misionestak, gauza bera erran dik prediku alkitik.

KATXIN- To, hik biziki ontsa ikasia omenduk Jaun Misionestak krimaz eman predikua... Ale, behar daukuk prediku hori egin.

TART.- Emanen diat, bainan zuek ixilik egotekotan, elizan bezala.

DENEK- Ba, mutikoa ba... To, haugi hunarat... Upa-adi mahai-naren gainerat... Ale, xo, Lot adi...

TART.- (hazparneko misionest ezagutu zonbait imitatuz, emaiten du predikua)

Krima... Krima izigarri baten xehetasun hitsak hedatu dira Eskual-Herriaren hegala urrunetaraino, gure arrazaren omen ona histen dutela, jende xehen bihotzak lazten, gure arteko goxotasuna iluntzen eta nahasten...

Krimaren tokia : Senpere... Krimaren ondorioa : Artzain gaixo bat, gorputz... Krimaren egilea : Nehork ez jakin nor den... Makur mintzo naiz... Ba, bada, norbeit oro baitazki... Bada norbait, norentzat barneak kanpo, eta iluna egun argi, baitira, norbait hura : Gure Jainkoa... Norbait haren gaztigua, ez da mentura, bainan segura. Eta gure artean balinbada delako kriminela, ez dezake uka nik errana... Adi-zak, kriminel trixtea... Bularrari jo eta jo ari zaukan danga hori, Jainkoaren boza duk... Nahi hukek pausatu, lo egin, ahantzi... ez... danga, danga... Jainkoaren bozak ez dik pausarik emaiten...Nahi hukek alegeratu, goxatu, bakea jastatu... danga, danga... Jainkoaren bozak ez dik deskantsurik uzten... danga, danga... Soinu bera entzunen duk ase artio, nahasi artio, errotu artio... danga, danga...

GANIX- (Urroaz)- Bakia, bakia eta bakia... Leporaino badiat zuen danga eta danga zikinarekin.

KATXIN- Yes... Bainan, gizona, zer duzu ?... Ez gira zutaz ari... Ahusatzen ari gira.

GANIX- Ahusamendu latza... akitgarria... errespeturik gabea...

TART- (Sekulako elasturian)- Ez gira zutaz ari, gu... danga, danga... Kriminelari nola joiten dion kontzien-tziak, erraiten dut nik... Ba, danga, danga... Merezi ahal du, alabainan, hola gizona hil eta errez geroz.

GANIX- (Brau jalitzen da, esker tzar batean)

TART.- (Ondotik jarraitzen zaiola) nolakori ez laitake aski lepoa moztea. Behar liezke, lepoa moztu aintzin, ontsa sofriarazi. Eta hola ez laitake gehiago buha-merik... danga, danga, pits ez duk alabainan buhamen-tzat.

(OIHALA)

XILINTXA SORGINA

Maria eta Andre Martina

(Elgarrekin sartzen direla)

MARIA- Sar zaitte, sar, Andrea ; huna beraz emaiten ahal dautzutan egon tokia.

ANDRE MARTINAK(orori behatzen diotela)- Arras nik behar bezalako da eta !... Diozu jabeak utzi zaituela, niri zenbeit asterentzat emaitera ?

MARIA- Segurki, Andrea... Utzi, eta nola utzi ? Jainkoaren lorian oraino ! (xilintxa mixteriozkoa jo eta jo huna hasten dela). (Jendeeri:) Ai ! Zerua !... Xilintxa !... Xurtxuri bat bezenbat daldaretan nago ! Bainan, ihardoki behar dut, eta deusik ez irakusterat eman.

ANDRE MARTINA- Bainan, jo ez dute ? Norbeit bada beraz hemen ?...

MARIA- Ez, gatua ari bide zen sokarekin jostetan(xilintxak jotzen da berriz). (ahapetik). Oh ! zer da sorginkeria hau !

ANDRE MARTINA- Huna berehal berehala, berrogoi libera, hitzeman erresak.

MARIA- Gisakoago ez diteke izan, Andrea ! (xilintxa berriz! oraino!). Xilintxa berriz ! Debruek ereman balezate !

ANDRE MARTINA- Xilintxa nardagarria, egiazki !

MARIA- Zaude deskantsu, ez zaitu lüzaz nardaturen ! Ikusten duzu : huna, hemen, barne ttiki pullit bat (eskuineko atea erakusten diola). Hemen, aldiz, ezkerrean, erran badezaket : aldatei ttiki bat... horra zertako gakoak hetsia dudana... (Berriz ere xilintxa). (Ahapetik). Xilintxa madarikatua ! Mila pusketan emaiten ahal bahindut !...

ANDRE MARTINA- Ongi da. Eta orai, ez zintezke joan, krakadarentzat behar nitzuken bi ogi-olaten bila ? Bertze deuseren beharrik ez nuke, ezen udare eta sagar zenbeit baditut, hor, ene zakuan... Orizu, huna dirua.

MARIA- Zerbitzari, Andrea. (Otarre bat hartzen du).

ANDRE MARTINA- (Gibelez Mariari dagola, bere zaku ttikitik ateratzen ditu udare eta sagar batzu ederrak, eta, batre gibelerat behatu gabe, mahain ezkinean emaiten ditu oro).

Dugun ikus eian lehertuak, xirtxi-frikatuak diren ?  
Ez ; beharrik !

MARIAK - (ahapetik)- Oh ! Hoik udare ederrak, hoik sagar  
ederrak !

(Eta Andre Martinak eman arau, hura batre ohartu  
gabe, Mariak, mahain ezkingean hartu udareak sartzen  
ditu bizkar gibelean gordetzen duen otarrean. Bainan,  
gibeletik, orduan berean, Andre Margaita etxek-  
Andreak, idekitzen du bere atea, eta Maria deuseri  
ohartzen ez delarik, udare hek berak bederazka har-  
tzen diozka otarretik, eta gero... badao, ixil-  
ixila).

ANDRE MARTINA- (Mariaren ganat itzulirik)- Jar banindadi  
pitta bat ? Bideak unatua ere nau, karrasarik ez  
zelakotz neretako, Donianeko garan edo gelditokian.

MARIA- (Behatzen diola bere otarreari)- Oh !

ANDRE MARGAITAK- Zer bada ?

MARIAK- (zuri zuria egina)- Deusik ez, Andrea ! Zure olaten  
bila noa. (Ahapetik) Segur, serginak badirela etxe  
huntan ! (Badao).